

6. (1518-1520)



6.1. 1518. URTEA

6.1.1. Zumaiako Kontzejuak Aizarnazabal eta Oikiakoekin zuen auziaren epaia

Aizarnazabalgoak eta Oikiakoak aspalditik kexu ziren Zumaiako Kontzejuak zenbait gastu ordainarazi egiten zielako. Ondorioz, Gipuzkoako korrejimenduan auzia zuten aurreko urteetan hasita (ikus [XVI. m. (16) 26] eta [XVI. m. (17) 6] agiriak).

- 1518-I-13an, Aizarnazabalgo elizaren aurrean, Zumaiako Kontzejuko Lope Fernandez Zumaiakoa prokuradoreak Zumaiako Kristobal Gartzia Azkuekoa eskribauarekin azaldu zen. Dei egin zien Joan Mirubia, Joan Etxabegoikoa eta Joan Amilibia saiaztarrei. Auzian Beltran Untzeta eskribauarekin batera testigantzak jasotzeko beren eskribaua izenda zezatela eskatu zien. Lekuko Pedro Zumaia (Txiribogako etxearen jabea, Urbietakoa) eta Joan Erretola izan ziren. Ondoren Pedro Martinez Mantzizidorkoari gauza bera eskatu zioten.

Gero, Zumaiako plazan, Saiaz eta Oikiakoen izenean Joan Domingo Areitzagakoa prokuradoreak Joan Martinez Ibarbiakoa azpeitiarra izendatu zuen eskribau lekukoekin testigantzak jasotzeko.

- 1518-I-14an, Azpeitian, Saiazkoen prokuradore Joan Lopez Etxanizkoak idaztia aurkeztu zion korrejidoreari bere aldeko arrazoiekin.

- 1518-I-19an, Zumaiako portalean, Azpeitiko Joan Martinez Ibarbiakoa eta Getariako Beltran Untzeta eskribauak azaldu ziren, korrejidoreak aginduta bezala, testigantzak jasotzera. Lope Fernandez Zumaiakoak, Kontzejuaren izenean, Aginaga lizentziatuak presaturiko galdera-zerrenda aurkeztu zuen, lekukoek erantzun ziezaioten. Kontzejuko gastuen ordainketei buruzkoak ziren. Zenbait pribilegio eta eskritura ere ekarri zuen. Lekuko hauek aurkeztu zituen: Martin Indaneta (Zumaiako San Pedro elizako bikarioa), Iñigo Dornutegi apaiza, Martin Otsango apaiza, An-

dres Perez Indanetakoa eta Diego Perez Indanetakoa alkateak, Martin Fernandez Dornutegikoa, Joan Martinez Iraetakoa, Joan Fernandez Izetakoa, Martin Naruondo ontzi-maisua eta Kristobal Gartzia Azkuekoa eskribaua. Denek zin egin zuten. Aurkezpen hartan lekuko Zumaiako Joan Santxez Akoakoa eskribaua, Joan Perez Irurekoa eta Joan Irure izan ziren.

- 1518-I-23an, Zumaian, Lope Fernandez Zumaiakoak beste bi lekuko aurkeztu zituen: Migel Agirre (San Pedro elizako apaiza) eta Joan Perez Elorriagakoa eskribaua. Hauek ere zin egin zuten. Ondoren lekukoek banan-banan erantzun zieten egindako galderari.

- 1518-II-12an, Azpeitian, Gipuzkoako Pedro Nava korrejidoreari, Saiaz eta Oikiakoen Joan Lopez Etxanizkoak prokuradoreak auziaren ardura har zezala eskatu zion. Lekukoekin testigantzak argitara zitzala ere eskatu zion. Pedro Ubaiar prokuradoreak Zumaiako Kontzejuaren izenean testigantzak hartzeko epea zuela jakinarazi zion korrejidoreari.

- 1518-II-23an, Azpeitian, Zumaiako Kontzejuaren izenean Pedro Ubaiar prokuradoreak zenbait eskritura, testigantza eta pribilegio aurkeztu zituen.

- 1518-IV-17an, Zestoan, Pedro Ubaiarrek Gipuzkoako korrejidoreari idaztia aurkeztu zion, Zumaiako Kontzejuaren izenean, epaia haien alde eman zezan. Korrejidoreak auzia amaitutzat jo zuen.

- 1518-XII-15ean, Azpeitian, Pedro Nava korrejidoreak epaia eman zuen Saiaz eta Oikiakoen alde. Zumaiako Kontzejuak Orreagako priorearekin San Pedro elizako benefiziaduen auzian izandako 15.000 marairen gastutik herena egotzi zien Aizarnazabal eta Oikiakoei, eta hauek ez zuten heren hura ordaintzeko obligaziorik. Beraz, ez zitzairen kobratuko, eta bahituran hartu zizkieten gauza guztiak itzuli egingo zizkien Kontzejuak Aizarnazabal eta Oikiakoei.



6.1. irudia. Azkoitiko Ubaiar etxea.

Pedro Ubaiar prokuradoreak gora jo zuen, epai harekin ados ez zegoelako.

- 1518-XII-18an, Azpeitian, korrejidoreak baimena eman zion Pedro Ubaiarri Zumaiako Kontzejuaren ize-nean auzia Valladolidko Kantzelaritzara eramanean zezan.

- 1518-XII-22an, Azpeitian, Pedro Ubaiarrek korrejimenduko Frantzisko Perez Idiakaizkoa eskribauari prozesuaren kopia eskatu zion. Bi erreal eman zizkion Pedrok soldata gisa.

- 1518-XII-23an, Zumaian, bertako Kontzejuak prokuradore izendatu zituen Anton Oro, Diego Terros, Joan Lopez Arrietakoa eta beste zenbait, Valladoliden auziari jarraipena eman ziezaioten (ikus [XVI. m. (18) 1] agiria).

6.1.2. Kortazar, Armendi eta Arrona etxe-koen ezkontza-kontratuak

- 1518-V-13an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Martin Perez Kortazarkoa azaldu zen. Martinek zioenez, Pedro Perez Kortazarkoa zenaren eta Maria Martin Kortazar zenaren seme eta oinordeko zen. Arreba Santxa Kortazar Martin Atxagarekin ezkondu zen, eta dote gisa 20 kintal

burdina eramane zituen. Santxa arreba, ordea, legezko seme-alabarik utzi gabe hil zen, eta Martin Atxaga berriz ezkondu zen. Domenja Mirubia zuen bigarren emaztea.

Martin Atxagak Santxaren dotetik jasotako 20 kintal burdinak itzuli egin zituen, eta Martin Perez Kortazarkoak ordainagiria eman zien Martin Atxagari eta Domenja Mirubiari (ikus [XVI. m. (18) 2] agiria).

- 1518-VI-13an, Aizarnako elizan, Zestoako Joan Martinez Ibañetakoa eskribauak Arroako Joan Armendiaren eta Zestoako Maria Aniza Lasaren arteko ezkontza-kontratua idatzi zuen. Han ziren Maria Perez Armendikoa (Joanen ama eta Domingo Armendiaren alarguna) eta Joan Arrebekoa batetik, eta Martin Gartzia Lasakoa (Maria Anizaren anaia eta Lasako etxeko jauna) bestetik. Martin eta Maria Aniza Joan Gartzia Lasakoa zenaren seme-alabak ziren.

Maria Perezek eta Joan Arrebekoa senar-emazteei orduan Debakoa zen Arroako Armendi baserria bere ondasunekin eman zieten. Hala ere, etxe eta ondasunen gozamenaren erdia Maria Perezentzat izango zen bizi zen artean. Gero senar-emazteentzat izango zen. Hauek ordainduko zituzten Arroako San Esteban elizan Maria Perezen hiletak.

Martin Gartzia Lasaokoak Maria Perezi eta senar-emazteei urrezko 160 florin eman zizkien, Lasaoko etxe, burdinola, errota eta ondasunetatik arrebari zegozkiolako. Horrez gain, Martin Gartziak 160 kintal burdina, zilarrezko katilua, lau ohe eta jantziak eman zizkien. Martinek fidatzaile gisa Joan Lopez Zelaikoa eta Joan Urbieta zestoarrak izendatu zituen. 160 kintalak epeka ordainduko zituen Martinek Beduako erreterian: 50 kintal hurrengo zaldun-inaute egunean, handik urtebetera beste 50 kintal, handik urtebetera 30 kintal eta handik urtebetera azken 30 kintalak.

Maria Perez Armendikoak eta Joan Arbebekoak fidatzailetzat Zestoako Joan Beltran Iraeta (Iraeta etxeko jauna) eta Debako Domingo Uzkaña, Joango Urainziar, Joan Areitzaga gaztea eta Joan Ermua izendatu zituzten.

Ezkontza hura legezko seme-alabarik gabe deuseztatzen baldin bazen edo seme-alaba guztiak testamendua egiteko adina baino lehen hiltzen baldin baziren, ezkontzara eramandako ondasun bakoitza bere jatorrizko enborrera itzuliko zen.

Ezkontza-kontratuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Gebara apaiza, Domingo Lizarrarats, Es-

teban Aisoro (Zestoako Andre Mariaren elizako bikarioa) eta Sebastian Artazubiaga (ikus [XVI. m. (18) 3] agiria).

- 1518-IX-10ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean ezkontza-kontratua egin zuten Joan Arronak eta Katalina Baltzola zestoarrek. Joan Arroña Joango Arroña zenaren eta Katalina Areitzagaren semea zen. Katalina Baltzola, berriz, Martin Baltzola zenaren eta Maria Perez Alzolaraskoaren alaba.

Katalina Areitzagak senar-emazteei Zestoako errebalean zeukan etxea, arrea, bi ohe, baratzea eta sagastia eman zizkien. Bertako gozamenaren erdia, ordea, Katalina Areitzagarentzat izango zen, bizi zen artean. Senar-emazteek egingo zizkieten hiletak eta, halaber, etxeko hildakoen elizkizunak egingo zituzten. Katalina Areitzagak gozamenaren erdia senar-emazteei uzten bazien, hauek jantzi eta mantendu egin beharko zuten bere bizialdian.

Maria Perez Alzolaraskoak alaba Katalina Baltzolari dote gisa urrezko 100 dukat emango zizkion, honako epe hauetan: hurrengo urteko San Migel egunerako 40 dukat, handik urtebetera 30 dukat eta handik urtebetera gainerako 30 dukatak. Hiru ohe, kutxa eta arropak ere emango zizkion.

6.2. irudia. Arroagoia. Armendi baserria.



Ezkontza legezko seme-alabarik izan gabe deuseztatzen baldin bazen, edo seme-alabak testamentua egiteko adina baino lehen hiltzen baldin baziren, emandako ondasun bakoitza bere jatorrizko enberrera itzuliko zen. Ondasun haiei ateratako etekina, ezkontza deuseztatzen baldin bazen, erdibana hartuko zuten Maria Perezen eta Katalina Areitzagaren aldeek.

Maria Perez Altzolaraskoak emandako 100 dukatak nola banatuko ziren ere zehaztu zuten. Katalina Areitzagak fidatzaile zestoar hauek izendatu zituen: Joan Martinez Amilibikoa eta Sebastian Artazubiaga. Maria Perez Altzolaraskoaren fidatzaileak hauek ziren: Joan Baltzola arrotarra eta Domingo Artiga zestoarra. Ezkontza-kontratuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Otxoa Artazubiagakoa, apaiza, Joan Beltran Gebara eta Martin Itziar.

Jarraian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Marina Arrona eta Maria Arrona ahizpak (Joango Arrona zenaren eta Katalina Areitzagaren alabak) beren seniparteari uko egin zioten Joan Arrona anaiaren eta Katalina Baltzola emaztearen mesedetan. Zin egin zuten eskritura hark zioena bete egingo zutela.

- 1518-IX-20an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Arronak onartu egin zuen

arreba Marina Arronarengandik urrezko hamar dukat jaso zituela. Landareak aldatzeko eta beste zenbait lanetarako behar zituen. Urtebeteko epearen barruan ordainduko zizkion 10 dukatak. Gainera Maria Perez Altzolaraskoak Katalina Baltzola alabari (Joanen emazteari) emandako dotetik kobratu ahal izango zituen. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Arretxe hargina, Martin Artazubiaga eta Joango Ibañeta (ikus [XVI. m. (18) 4] agiria).

6.1.3. Liliko Joan Perez Idiakaizkoa jaunaren testamentua, etab.

- 1518-XI-21ean, Zestoako Liliko dorrean, bertako jaun Joan Perez Idiakaizkoak testamentua egin zuen Otxoa Arriola eta Joan Martinez Ibañetakoa eskribauen aurrean. Testamentuaren zati batean dioenez, Domenja Lili emaztearekin izandako Martin Perez semeari urrezko mila dukat utzi zizkion seniparte gisa.

Joan Perez Idiakaizkoaren legezko seme-alabak legezko ondorengorik gabe hiltzen baziren edo ondorengoak testamentua egin gabe hiltzen baziren, herentziatik jasotako guztia Domenja emazteari edo (Domenja hil ondoren) Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa semeari emango zioten. Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa seme zaharrena zen, oinordeko unibertsala.



6.3. irudia. Altzolarats (behekoa) edo Bekola.

Joan Perez aitak zeuzkan diru, zilar, urre eta burdinak herentziatik aparte utzita Domenja emaztearentzat izango ziren. Joan Perez semeak eta Domenja amak aitaren merkataritzako ardua guztiak hartuko zituzten. Munduan zehar aitak zituen faktore eta negoziatzaileek Joan Perez semeari kontuen berri eman eta ordaindu egingo zioten.

Testamentuan lekuko hauek izan ziren: Debako Olano batxilerra, Martin Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Zestoako Joan Beltran Iraeta, Fernando Olazabal medikua, Pedro Igartza, Domingo Zabala eta Domingo Lizarrarats (ikus [XVI. m. (18) 6] agiria).

Testamentuan dioenez, Liliko etxea, burdinolak, baserriak, errotak, mendiak, basoak, larreak, etab. seme zaharrenarentzat izango ziren. Joan Perez semea ezkondu bitartean ondasunak Domenja Lili emazteak kudeatuko zituen. Joan Perez seme zaharrena legezko seme-alabarik gabe hiltzen bazen, Domenjak hartuko zituen ondasunak, baina bizi ez bazen Martin Perez semea izango zen oinordeko. Martin ere legezko seme-alabarik gabe hiltzen bazen, San Joan Perez semea izango zen oinordeko, eta hau ere seme-alabarik gabe hiltzen bazen, Maria alaba (Iraetako andrea, Joan Beltran IV.a Iraetaren emaztea) izango zen oinordeko. Maria ere seme-alabarik gabe hiltzen bazen, Ana Perez alaba izango zen oinordeko.

Liliko aipatutako ondasunak ezingo ziren inoiz saldu edo besterendu. Joan Perez semeak haietako ondasunen bat saltzen bazuen, Martin Perez anaiak hartuko zuen ondasuna, eta Martinek saltzen bazuen, San Joan Perez anaiak hartuko zuen.

- 1518-XI-25ean, Liliko dorrean Otxoa Arriola eta Joan Martinez Ibañetako eskribauen aurrean Domenja Lilik, senar Joan Perez Idiakaizkoaren baimenaz, onetsi egin zuen honek egindako testamentu osoa. Domenjak idazten ez zekielako, Olano batxilerrak sinatu zuen haren orde.

- 1518-XII-3an, Joan Perez Idiakaizkoa hil ondoren, Liliko dorrean Domenja alargunak eta Joan Perez

Idiakaitz-Lilikoa semeak onetsi egin zuten aita zenaren testamentua. Martin Lizarraratssek sinatu zuen Domenjaren orde (ikus [XVI. m. (18) 7] agiria).

Joan Perez Idiakaizkoak testamentu hartan Liliko maiorazkoa sortu zuen, Gipuzkoako ohiturari jarraituz eta mairazkoaren ondasunak seme zaharrenari utziz. Ondasun haiek ezingo zituzten saldu edo besterendu, ez Joan Perez aitaren seme-alabek eta ez haien ondorengoek¹.

- 1518-IX-25ean, Tolosan bestalde, Gipuzkoako Pedro Nava korrejidoreak Joan Cigales merioari agindua eman zion. Pedro Nava doktoreak zioenez, aurreko korrejidoreak Errodrigo Txiriboga edo Urrutiaren eta Katalina Mirubiaren ondasunak bahitu eta exekutatzeko bidean ipini zituen; izan ere, Errodrigok eta Katalinak 60 kintal burdina zor zizkieten Pedro Hernandez Areitzagakoaren oinordeko Domenja Zugasti eta Maria Otsangori eta Hernando Otsangori. Errodrigo eta Katalinari Txiribogako etxea, errotak, burdinola eta gainerako ondasunak bahitu zizkieten. Dena den, ondasunen exekuzioa geldirik zegoen.

Pedro Nava korrejidoreari Errodrigo eta Katalinaren Pedro Zumaia (edo Txiriboga) semea eta Domenja eta Mariaren Joan Domingez Areitzagakoa prokuradorea joan zitzaizkion, eta bi aldeek ondasunen errematea egin zezala eskatu zioten. Korrejidoreak horretarako agindua eman zion merioari.

- 1518-IX-30ean, Zestoako Urbietan bailaran, Joan Perez Mantzizidorkoa eskribuaren aurrean Joan Zarate merioordeak Joan Domingez Areitzagakoa (Domenja Zugastiren eta Maria Otsangoren izenean) Txiribogako etxe, errota, burdinola eta lurretara sartu zuen eta haien jabetza eman zion. Jabetza hari aurka egitea debekatu egin zuen merioordeak.

Ondoren Joan Domingez Areitzagakoak Katalina Mirubiari eta Pedro Zumaia semeari eskutik heldu eta Txiribogako etxera eta gainerako ondasunetara sartu zituen. Han bizitzeko baimena eman zien, baina Domenja Zugasti eta Maria Otsango jabeek besterik

erabakitzen zuten arte egongo ziren han. Lekuko Zestoako Blas Artazubiaga eskribaua eta Martin Txiriboga izan ziren.

Ondasun haien exekuzio-gastuen tasazioa (1.060 maraikoa) egin zuten, eta korrejidoreak Seguran onartu zituen (han Batzar Nagusietan zegoelako, jakina) azaroaren 16an (ikus [XVI. m. (18) 5] agiria).

6.1.4. Zestoako Batzar Nagusiak

1518ko apirilaren 17tik 26ra bitartean Zestoan bildu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Gipuzkoako korrejidorea, Pedro Nava doktorea, ere bertan zen, hiri-bilduetako eta Alkategoetako prokuradoreekin batera. Zestoako ordezkariak Hauek izan ziren: Domingo Artiga alkatea, Joan Perez Idiakaizkoa (Liliko jauna), Martin Gartzia Lasakoa, Otxoa Martinez Beduakoa (edo Martzanakoa), Joan Martinez Ibañetakoa, Joan Aizarna fiela eta Pedro Zumaia.

Joan Perez Idiakaizkoak eta Zestoako Kontzejuko batzuek Batzarretako presidente Olano batxilerra aurkeztu zuten. Zestoako alkateak eta beste batzuek, berriz, Aginaga lizentziatua aurkeztu zuten kargu hartarako. Zozketa egin zuten eta Aginaga lizentziatua izan zen presidente.

Apirilaren 18a igandea izan zen, eta 19ean egin zuten prokuradoreek bilera. Aginaga lizentziatuak egin zuten Ordenantzak zaindu eta beteko zituela. Zestoaren izenean Joanes Ibañetak eskea egin zion korrejidoreari preso zeuzkan debarrak fidantzak eskatuta aska zitzan. Barbota-ko morroiaren gaiztakeriak aipatu zituzten, baina korrejidoreak debarren aldeko frogak eskatu zituen.

Egun hartan Batzarretara Getariako Luis Untzaga eta Azkoitiko Joanes Aizatarri ermandade-alkateak etorri ziren. Gipuzkoan merkataritzan erabilitako neurriak Toledoko ereduak izatea erabaki zen. Gipuzkoari zegozkion beste hainbat gairi buruzko erabakiak ere hartu zituzten.

Apirilaren 20an jarraipena izan zuten Batzar Nagusiek eta Probintziako neurriak Toledoko ereduak izateko Getariakoek ere egokitzea onartu zuten. Amezketaren batxilerrak eta Joan Martinez Lasakoak (Probintziaren prokuradoreak) gortean egindako lanen berri eman zuten. Haiei ordaintzeko era botoetara erabaki zuten.

Apirilaren 21ean Ahaide Nagusiek korrejidoreari egindako eskeaz eztabaida egin zuten. Beste hainbat gai ere aztertu ziren. Bernardino Murgia jaunari Er-



6.4. irudia. Artiga edo Artia baserria (desagertua).

gobiko zubia konpon zezala agindu zioten. Uholdeek hondatu zuten zubia eta jendea gaizki ibiltzen zen ibaia zeharkatzen.

Probintziak, bestalde, beltz bat erostea erabaki zuten, borrhero-lanak egin zitizan.

Apirilaren 22ko bileran, besteak beste, zenbait herritako prokuradoreek korrejidorea jakinaren gainean jarri zuten Ahaide Nagusiak legez kontra elkartu zirela. Zigor zitzala eskatu zioten.

Bestalde, Ortuño Plazaola kartzelan zegoen eta bere kaparetasunaz gozatu nahi zuten, kaparetasunfrogak aurkezturik zituelako. Zestoako ordezkariak kaparetasun-legea bete zedila eskatu zuten.

Apirilaren 23an Ahaide Nagusien gaiez, Murgiako bidesariak, Igorpen-alkatetzaz, ardi-larruez, Probintziak gehienez izan zitzakeen merioordeez eta abarrez jardun zuten. Hurrengo egunean, 24an, berriz, Igorpen-alkatetzaz, Batzarretako sekretuaz eta beste hainbat gai izan zituzten hizpide.

Hilaren 26an izan zuten jarraipena Batzar Nagusiek. Frantzisko Perez Idiakaizkoak eskea egin zuten Probintziako auzitegiko eskribau Martin Perez

Idiakaizkoa izenda zezaten. Boto bidez erabaki ondoren, baiezkoa eman zioten. Beste hainbat giaren artean Nafarroako erregeordearengana batzordea bidaltzea erabaki zuten, Probintziari zegozkion gaiak iker zitzaizten².

6.1.5. Gipuzkoako gainerako Batzarrak, etab.

1518. urtean Gipuzkoako Batzar Bereziak Azkoitiko Basarte eta Azpeitiko Olatzen elkartu ziren. Bertan Pedro Nava korrejidoreak zin egin zuten Probintziako usadio eta ohiturak bete eta gordeko zituela.

Batzar Bereziak bigarrenegoz uztailaren 28an bildu ziren. Bidaniko Usarragan ospatu ziren zortzi egunez.

Urteko bigarren Batzar Nagusiak Seguran bildu ziren azaroaren 24an. Hamalau egun iraun zuten. Zestoatik Sebastian Artazubiaga joan zen, hain zuten Zestoako Batzar Nagusietan Probintziari sukaldeka hiribilduek ordaindu behar ziotena jasotzeko ardura hartu zuena.

1518-III-13an errege-agindua bidali zuten Ahaide Nagusien eraginez (Joan Beltran IV.a Iraeta barne)

6.5. irudia. Azpeitia.
Olazko ermita.



Batzarretan botoak emateko sistema alda ez zezaten. Geroxeago, ekainaren 13an, Gipuzkoako Batzarretan sukaldeka botoak lehen bezala emateko erabakiaz errege-gutun betearazlea igorri zuten³.

1518an Zestoako Batzar Nagusietan, apirilean, Probintziak izandako gastuen zerrenda egin zuten. 264.300 maraikoa zen guztira, eta 2.168 sukaldetan banatuta bakoitzari 118 marai egokitu zitzaizkion. Segurako Batzar Nagusietan, azaroan, Probintziak 160.148 maraiko gastu-banaketa egin zuen. 2.118 sukalderean artean banatuta, bakoitzak 74 marai ordaindu beharko zituen⁴.

Zenbait gipuzkoar nabarmendu zen urte hartan, egiten zuten lanagatik. Haietako bat Pedro Zuatzola azkoitiarra zen, gorteko idazkaria. 1518-III-22an Valladoliden Joana erreginak eta Karlos semeak altxor-tegiko kontulari nagusiei gutuna bidali zieten. Pedro Zuatzola idazkariak 65.000 maraiko soldata zuen (35.000 marai erreginaren etxeko “continó” edo zerbitzari zelako jasotzen zuen, eta beste 30.000 erreginaren zedulagatik).

Pedro Zuatzola idazkariak soldata 100.000 marairaino igotzea eskatu zuen, eta erreginak eta Karlos semeak ontzat eman zuten eskaera⁵. Gainera 1518an Pedro Idiakaitz azkoitiarrak eta haren seme-alabek Azpeitiko eta Azkoitiko burdinolekako zergetatik jasotzeko zuten eskubidea Pedro Zuatzolari eman zioten bizialdirako⁶.

Joan Alos Amilibikoa, gure iritziz debarra, itsasoan zebilen flotako *Trinidad* izeneko ontzi nagusian patroizanik. Erreginaren itsas armadan Aljerren Siziliako erreinuko erregeorde Monteleongo kondearen aginduetara ibili zen 1518-V-lean hasita 1519-VII-20a arte. Bere zerbitzuengatik 1.236.650 marai kobratzea zegokion⁷.

1518-X-2an Londresko ituna egin zuten Frantziako Frantzisko I.ak, Espainiako Karlos V.ak, Ingalaterrako erregeak eta Aita Santuak. Karlos V.ak. aholkularien iritzitari jarraituz, Nafarroako erreinua ez zion Enrike

II.a Albretekoari itzuli³. Iruñeko elizbarrutian apezpiku Amaneo Albret kardinala zen, Nafarroako erregearen anaia. Karlos V.ak Aita Santuari eskea egin zion Gipuzkoako lurak Iruñeko elizbarrutitik at gera zitezen. Leon X.ak abadia sortu zuen Hondarribiko artzapezbarrutia eta Gipuzkoako artzapezbarrutia barne hartuz. Abadea zuzenean Erromako Aita Santuaren mende geratu zen, eta ez Iruñeko apezpikuaren mende. Lehen abadea Joan Loaisa izan zen, Sardiniako Alghero-ko apezpikua. Dena den, 1518-III-11n, Amaneo Albret kardinalaren Iruñeko Joan Pablo Olivero bikario nagusiak Donostiako Andre Mariaren elizako bikario Martin Perez Luskandokoa izendatu zuen bizialdirako. Nafarroako erregeordeak, berriz, Amaneo Albretekin harremanak izatea debekatu egin zuen⁸.

Urte hartan, 1518an, Mexiko konkistatzen ari zen Hernan Cortes, eta harekin omen zebilen Migel Otxoa Beduakoa⁹. Ez dakigu Migel Otxoa hau Beduako fa-



6.6. irudia. Getariako Joan Sebastian Elkano.

miliakoa edo 1493an (ikus *I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XV. m. 211] agiria) aipatu dugun Getariako Otxoa Beduaren senideren bat zen.

Dena den, Getariako Joan Sebastian Elkanok munduari bira eman zion espedizioa prestatzen ari zen Fernando Magallaes 1518. urtean. Martxoaren 22an Magallaesek ituna egin zuen Karlos erregearekin eta Joana ama erreginarekin. Errege-erreginek bost itsasontzi armatuko zituzten: bi 130na upelekoak, bi 90na upelekoak eta bat 60koa. Tripulazioan 234 per-

tsona bilduko ziren. Artieta kapitainak Bizkaian eta Gipuzkoan itsasontzi haietarako hornidurak erosi zituen; baita *Trinidad* izeneko itsasontzia (flotako itsasontzi nagusia) eta, seguru asko, Zarautzen eraikitako *Vitoria* itsasontzia ere¹⁰. *Trinidad* (180 upelekoa), *San Antonio* (120 upelekoa), *Concepcion* (90 upelekoa), *Vitoria* (85 upelekoa) eta *Santiago* (75 upelekoa) ziren espedizioko flota osatzen zuten bost itsasontziak. Gipuzkoako eta Bizkaiko marinela ere joan ziren espedizio hartan; Getariako Joan Sebastian Elkano *Concepcion* itsasontzian, hain zuzen¹¹.

6.2. 1519. URTEA

6.2.1. Zumaiako Kontzejuak Aizarnazabal eta Oikiakoekin zuen auzia Kantzelaritzan

Aizarnazabal eta Oikiako biztanleek Zumaiako Kontzejuarekin gastu-ordainketaz Gipuzkoako korrejimenduan zuten auzi luzearen ondoren epaia eman zuten Zumaiaren aurka (ikus [XVI. m. (18) 1] agiria). Ondorioz, Pedro Ubaiar prokuradoreak Zumaiako Kontzejuaren izenean auziaren kopia eskatu zion korrejimenduko Frantzisko Perez Idiakaizkoa eskribauari, gora jo eta auziak Valladolidko Kantzelaritzan jarraipena izan zezan. Eskribauaren soldatagatik txanponak aurrez eman zizkion 1519-I-3an. Prozesuaren kopia berriz eskatu zion eskribauari Azpeitian 1519-I-26an eta 1519-II-7an. Baita 1519-IV-7an ere.

Prozesuaren paperak itxita eta zigilatuta 1519-IV-21ean aurkeztu zituen Anton Oro prokuradoreak. Testuak Toro hirian aurkeztu zituela dio, ohikoa Valladoliden aurkeztea baldin bazen ere. 1519-V-17an Joan Lazkano prokuradoreak Saiaz eta Oikiakoen izenean Gipuzkoako Pedro Nava korrejidorak emandako epaiaren alde idaztia aurkeztu zuen.

- 1519-V-20an, Valladoliden, Anton Oro prokuradoreak Zumaiako Kontzejuaren izenean Gipuzkoako epaia deusezta zezatela eskatu zien epaileei. Horrela jarraitu zuten bi aldeek, 1519-V-24an epaileek Valla-

doliden frogak aurkezteko 80 eguneko epea bi aldeei eman zieten arte. Gero, 1519-VII-15ean Valladolideko epaileek Zumaiari eskubidea aitortu zioten azkena emandako arrazoien frogak aurkez zitzan (ikus [XVI. m. (19) 2] agiria).

6.2.2. Joan Arreitza, Pedro Aizarnatea eta Martin Otxoa Artazubiagakoaren agiriak

- 1519-I-3an, Zestoan, Martin Ondalde alkatearen eta Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Arreitza zestoarra azaldu zen. Itxitako eta zigilatutako paper batzuetan testigantza batzuk aurkeztu zituen, eta alkateari paper haiek ireki eta argitara zitzala eskatu zion. Lekukoek sinadurak ezagutu zituzten, eta alkateak argitaratzeko agindua eman zuen. Lekuko Joan Zube, Domingo Artiga eta Martin Itziar izan ziren (ikus [XVI. m. (19) 1] agiria).

- 1519-I-15ean, Iraetako burdinolan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Pedro Aizarnatea eta Joan Beltran Iraeta elkartu ziren. Pedrok obligazioa hartu zuen urtebete barru Joan Beltrani urrezko zazpi dukat ordaintzeko. Pedrok lehendik lau dukat zor zizkion Joan Beltrani, Joan Martinez Ibañetakoa eskribauak egindako agiri batek zioenez. Orduan lau dukat jaso zituen, eta egun hartan, urtarrilaren 15ean, beste hiru. Beraz, guztira 7 ziren, urtebete barru ordaintzekoak.



6.7. irudia. Arroagoiko Goikoetxe baserria.

Agirian lekuko hauek izan ziren: Debako Joan Domingo Areitzagakoa, Migel Zugasti eta Kristobal Goienetxea eta Zestoako Joango Olaberrieta (ikus [XVI. m. (19) 3] agiria).

Zestoako Martin Otxoa Artazubiagakoak Joan Perez Arteagakoarekin eta anaiekin auzia zuen Kantzelaritzan Aiako Arrazubiko ondasunen kudeaketaren ondorioz (ikus [XVI. m. (17) 3] agiria). 1519-II-28an Toroko hirian auziak jarraipena izan zuen. Anton Oro prokuradoreak Joan Perez Arteagakoaren eta anaien izenean lekukoen testigantzak aurkeztu zizkien epaileei. Martxoaren leian Anton Orok testigantzak argitara zitzatela eskatu zien (ikus [XVI. m. (19) 5] agiria).

6.2.3. Zestoako Kontzeju-etxea berritzea eta Liliko semeen seniparteak

- 1519-II-15ean, Zestoako elizan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Kontzejuak bildu zen. Han ziren Martin Ondalde alkatea, Martin Lizarrarats fiela, Pedro Oviden fiolordea, Domingo Zabala probestuordea, Fernando Olazabal alkateordea, Martin Gartzia Lasakoa eta beste zenbait zestoar. Bestalde, Joan Akertza jostuna zegoen, eta harekin desadostasunak zeuzkaten Kontzeju-etxea berreraikitzeko. Kontzeju-

etxe berritua haren etxeari itsatsita berreraiki nahi zuten, eta jostunaren etxea ilunago geratuko zen.

Ondorioz, auzia zuten Gipuzkoako korrejidorearen aurrean, baina nahiago zuten auzia Zestoako arbitro epaileek ebatz zezaten. Horretarako Kontzejuak Joan Lopez Zelaikoa izendatu zuen arbitro, eta Joan Akertzak Domingo Arretxetxipia (Domingo Arretxe-Etxenagusia). Bi arbitroak ados jartzen ez baziren, Martin Ibañez Zubiaurreekoa izendatuko zuten hirugarren arbitro. Hamar eguneko epean epaia emango zuten. Haien erabakia betetzen ez zuenak 50.000 maraiko isuna ordainduko zuten.

Agiri hartan lekuko Zestoako Domingo Artiga, Joan Perez Arretzekoa eta Joan Aizarna itsas pilotua izan ziren (ikus [XVI. m. (19) 4] agiria).

- 1519-X-10ean, Zestoa, Liliko dorrean Joan Martinez Ibañetakoa eskribau zestoarraren aurrean Joan Perez Idiakaizkoa zenaren emaztea eta semeak elkartu ziren: Domenja Lili alarguna, Martin Perez Idiakaitz-Lilikoa, San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa (anaia zaharrena). Zestoako alkate Fernando Olazabal medikua ere bertan zen.

Joan Perez aita zenak testamentuan oinordeko unibertsal Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa seme zaharrena

izendatu zuen. Hari utzi zizkion Liliko etxea eta zegozkion ondasunak. Martin eta San Joan Perez semeei seniparte gisa bakoitzari urrezko mila dukat utzi zizkien.

Domenja Lilik, senarraren testamentua onartuz, Liliko etxea bere ondasun guztiekin Joan Perez semeari utzi zion. Beste bi anaiek ere ontzat hartu zuten dohaintza hura. Ama Domenjak, gainera, Martin eta San Joan semeei seniparteagatik bakoitzari beste 500 dukat emango zizkion. Beraz, urrezko 1.500 dukat jasoko zituen anaia bakoitzak. Martin Perez eta San Joan Perez anaiek, Liliko senipartetik 1.500 dukat baino gehiago bazegokien, soberakoa Joan Perez anaia maiorazkoari dohaintzan eman zioten. Zin egin zuten dohaintza haren aurka ez zirela joango.

Dohaintza-agirian lekuko Fernando Olazabal medikua, Martin Lizarrarats, Joan Martinez Lilikoa eta Debako Joan Martinez Olanokoa batxilerra izan ziren (ikus [XVI. m. (19) 7] agiria).

6.2.4. Altzolarats jauregiko burdinolaren errentamendua, etab.

- 1519-V-20an, Zestoan, Martin Otxoa Artazubiagakoaren etxean Blas Artazubiaga eskribauaren au-

rean Ana Arretxe eta Sebastian Artazubiaga elkartu ziren. Ana Arretxe Domingo Arronaren alarguna zen, Altzolarats jauregiko andrea, eta Zestoako alkateak seme-alaben tutore eta zaintzaile izendatu zuen.

Sebastian Artazubiagari Altzolarats jauregiko burdinola, erreka beste aldera Saiazko partean zegoena, sei urterako errentan eman zion, hurrengo ekaineko San Joan egunetik hasita. Burdinola bertako erreminta eta tresneria guztiarekin eman zion, hauspoak izan ezik. Errenta urteko 25 kintal burdinakoa zen. Altzolaratsen, Oikian edo Beduan Pazko garizumakoan ordainduko zizkion Sebastianek. Burdinola ondoko etxetxoa ere hartuko zuen Sebastianek, bertan bizi zedin. Hauspoak Sebastianek ipiniko zituen. Ana Arretxek prest edukiko zuen burdinolako gainerako makineria: hiru ardatz, gabi-iguna, boga, gabia eta ingudea. Haiek hondatzen baziren eta Sebastian Artazubiagak konpontzen bazituen, kostua errentatik deskontatu egingo zuen.

Burdinoletako bi ofizialek ikertuko zuten burdinolaren egoera; baita hauspoena ere. Haiek hauspoak balioetsi egingo zituzten kontratuaren amaieran, eta Ana Arretxek ordaindu egingo zizkion. Ana Arretxek basoak emango zizkion Sebastiani egur-ikatza egin

6.8. irudia. Altzolarats jauregi ondoko Olalde (lehen burdinola).



zezan. Ikatz-karga bakoitzarengatik bi txanpon eta erdi ordainduko zizkion maizterrak Ana jabeari. Lehortea zenean erreka ura burdinolak hartuko zuen, eta ez errotak.

Ana Arretzek zioenez, senide eta lagunei eskaini zien burdinola errentan, baina Sebastian Artazubiagak egin zion eskaintzarik onena. Gerragatik burdinolak denboraldi bat geldirik egiten bazuen, errentamenduaren denboraldia luzatu egingo zen geldirik egondako denbora berean. Errentamenduaren denboraldia amaitzen zenean, Sebastian Artazubiagak burdinola hasieran hartuta bezain egoera onean utzi beharko zuen.

Kontratu hartan lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Artzubiaga, Martin Otxoa Artazubiagakoa, Joan Otxoa Artazubiagakoa eta Martin Artzubiaga (ikus [XVI. m. (19) 6] agiria).

- 1519-XI-26an, berriz, Zumaian Joan Perez Elorriagakoa eskribauaren aurrean Zestoako Pedro Zumaiakoa (edo Txiriboga) eta Zumaiako Martin Narruondo maisua elkartu ziren. Pedrok Martini urrezko 6 dukat eta 37 txanpon zor zizkion. Sei dukat haietako 5 Martin maisuak Pedoren Santxa Txiriboga lehengusuari lehenago emanak zizkion, eta horregatik ondasunak bahitu egin zizkion. Bost dukateko zor hura, ordea, Pedrok bere gain hartu zuen.

Bost dukat haiez gainerakoa Pedro Zumaiak oihaletan hartu zion Martini. Ondorioz, Pedrok Martini zor osoa (6 dukat eta 37 txanpon) hurrengo abuztuko Andre Mariaren egunean ordainduko zion. Obligazio-agirian lekuko Zumaiako Andres Aginaga lizentziatua eta Joan Saez Zumaiakoa, eta Eibarko Joan Perez Iturroakoa izan ziren (ikus [XVI. m. (19) 8] agiria).

6.2.5. Gipuzkoako Batzar Nagusiak, Ordenantzak, etab.

Gipuzkoako lehen Batzar Nagusiak Azpeitian bildu ziren 1519. urteko apirilean. Gero, berriz azaroan Zarautzen 15ean eta 16an. Bertan Probintziak Leintz bai-

larari laguntza eman zion, Oñatiko kondearen aurka, Probintziako kide izan zedin. Gipuzkoak prokuradoreak bidali zituen Bilbora, han kintal burdinaren pisua bost libra gehiagokoa ipini zutelako¹².

Urtarrilean edo otsailean egindako Batzarretan Probintziarako Ordenantza berriak idatzi ziren, eta errege-erreginek 1519-II-18an onetsi egin zituzten. Batzar Nagusietan ezingo zuten prokuradore izan legegizonek. Prokuradoreek ezingo zuten elkar izendatu Probintziako kargu eta negozioetarako. Batzarretako prokuradoreak ezingo zituzten Probintziaren negozioetarako (ezta Probintziatik kanporako ere) izendatu. Batzarretara prokuradore gisa ezingo ziren joan korrejidorearen entzutegikoak; ez eta Ermandakoko hamabost merioak ere. Bestalde, auzia korrejidorearengana eramateko gutxienez mila maraikoa izango zen.

1519-IV-18an, berriz, Karlos V.a erregeak Bartzelonatik Gipuzkoara gutuna bidali zuen. Hark zioenez, Nafarroan kapitain jeneral zegoen Naiarako dukeak agian gerrarako jendea eskatuko zion Gipuzkoari. Horrela bazen, soldaduei beren egunengatik soldata ordainduko zitzairen. Otsailaren 27an ere bidalia zuen beste gutun bat turkoen aurkako armada zela eta³. Gerra-beldurragatik, Nafarroan Burgiko eta Zangozako gazteluak eraitsi egin zituzten¹³.

Urte hartan Gipuzkoako korrejidore Pedro Nava doktoreak Batzarretako botoak emateko eraren arazoa ebatzi behar zuen, hiribildu batzuek sukaldekako sistemaz jarraitu nahi ez zutelako. Irungo gotorlekuaren arduradun Gonzalo de la Torre ere kontrolatu behar zuen, Zestoako Batzarretan hartutako erabakia beteaz egin behar ziolako.

Urte hartan, bestalde, Azpeitian Joan Antxietak iloba, Gartzia Lopez Antxietakoa, izendatu zuen Azpeitiko Soreasuko elizako erretore, baina Pedro Oñatze eta Joan Martinez Lasaokoa eskribauak iloba hil egin zuten Enparango etxearen ondoan³. Hilketaren hura Pedro Oñatzi eta Joan Martinez Lasaokoari ez zieten barkatu 1530-IV-15a arte. Orduan, Ostiral Santu egu-

6.9. irudia. Debako Andre Mariaren elizako klaustroa.



nez, baldintzak ipini zizkieten barkamena lortzeko (bakoitzak 100 dukat ordaintzea, besteak beste)¹⁴.

Gortean, berriz, Azkoitiko Pedro Zuatzola idazkariak Bartolome Ibañeta ofiziala zuen berekin lanean, eta urtean 15.000 maraiko soldata ipini zioten¹⁵.

1519-XI-2an, Debako elizako klaustroan Kontzejuak eta apaizen parrokiako eta haren mendeko gainetako elizetako (Arroakoa barne) apaiz benefiziaduak aurkeztu eta izendatzeko hitzarmena onartu zuten¹⁶.

Urte hartako abuztuan Joan Sebastian Elkano getariarrak 32 urte zituen gutxi gorabehera,¹⁰ eta hiru urte geroago burutu zuen Magallaesen munduari bira emateko 1519an abiatutako espedizioa¹⁷.

Urte hartako otsailaren 14an, Suitzako Basileatik Joanes Frobenius tipografoak Martin Lutherri idatzizko Frankfurten ferietan Leipzig-ko liburu-saltzaile batek haren liburuxka batzuk eman zizkion, eta Joanesek 600 ale inprimatuta bidaliak zituen Frantziara eta Espainiara⁸.

6.3. 1520. URTEA

6.3.1. Joan Perez Idiakaitz-Liliren agiriak

- 1520-II-28an, Debako parte zen Sastarrainen, Debako Otxoa Arriola eskribauaren aurrean Martin Ibañez Sastarraingoa eta Maria Perez Altzolaraskoa elkartu ziren. Maria Perez zestoarra Martin Baltzolararen alarguna zen, eta seme-alaben tutore gisa zegoen. Martin Ibañez eta emazte Maria Martinek bere garaian Martin Baltzola zenari eta Maria Perez emazteari Sastarraingo baserria saldu zieten 327 kintal burdinatan.

Martin Ibañezek zioenez, salmenta hura baldintzatu izan zen, eta 15 urteko epean saltzaileak berreskura zezakeen baserria. Gainera Martin Ibañezek 227 kintal besterik ez zituen jaso, eta beste 100 kintalak, Maria Perezek zioenez, Maria Martin emaztearen dotekoak omen ziren.

Bi aldeek desadostasunak zituztelako, azkenean Sastarraingo baserria bere lur eta ondasunekin han zegoen Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa zestoarrari saltzea

erabaki zuten. Joan Perezek 420 kintal burdina emango zizkien: 227 kintal Maria Perezi, beste 100 Martin Ibañezen oinordekoei Maria Martinen doteagatik (hildako alaba bati zegokiona izan ezik) eta gainerakoa Martin Ibañez Sastarraingoari. Joan Perezek dirutan ordaindu zien Maria Perezi eta Martin Ibañezi.

Salmenta-agirian lekuko hauek izan ziren: Joan Perez Altzolaraskoa, Joan Perez Arretxekoa, Joan Martinez Amilibikoa eta Domingo Ezenarro (ikus [XVI. m. (20) 5] agiria).

- 1520-VII-25an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Martin Sastarrainen eta Maria Antxietaren arteko ezkontza-kontratua egin zuten. Martin senarra Martoanez Sastarrain eta haren lehen emazte Maria Martin Arriola zenaren semea zen. Maria Antxietaren gurasoak Martin Antxieta zena eta Teresa Ganbara ziren. Martoanez Sastarrain zen Teresa Ganbararen bigarren senarra. Zestoako bikario Esteban Aisorok ezkondu zituen Martin eta Maria.

Teresa Ganbarak ezkonberriei dote gisa Martin Antxietaren etxea eman zien, bertako arreo eta guzti. Sebastian Artazubiagaren etxearen ondoan zegoen, Arretxera zihoan bidean. Baion lursaila ere eman zien, Ipintzako etxearenaren ondoan, eta beste bat

Ausoroetxean, eta Bergarazelaian ere bai. Zestoako elizaren atzean, Palankadoko portalearen ondoan, baratzea ere eman zien. Dena dela, ondasun haien gozamenaren erdia Teresa Ganbararentzat izango zen bizi zen artean.

Martoanez Sastarrainek eta Martin Sastarrainek dote gisa 50 kintal burdina emango zituzten. Martin Antxieta zenak egindako zorrak ordaintzeko izango ziren. 40 kintal burdinaren fidatzaile Joan Perez Idiakaizkoa (Liliko jauna) izendatu zuten. Joan Perezek Sastarraingo baserria erosi zuenean 100 kintal burdina gorde zituen Martoanez eta Maria Martin Arriola zenaren bost seme-alabentzat. Bakoitzari 20 kintal zegozkion. Seme haietako bat hil egin zen, ordea, eta haren zatia Martin Sastarraini emango zion Joan Perezek: 40 kintal guztira. Lehen 20,5 kintalak Joan Akertzari emango zizkieten, Martin Antxieta zenak zor hura egin ziolako. 19,5 kintal Teresa Ganbarari emango zizkieten. Handik 14 kintal Joan Lopez Amilibikoari eta Lorentza Aranori ordainduko zizkion. Martin Sastarrainek beste 10 kintal emango zizkion Teresa Ganbarari: 5 handik bi urtera eta 5 lau urte barru.

Teresak ondasunen gozamenaren erdia senar-emazteei uzten baldin bazien, hauek, bizi zen artean, mantendu egin beharko zuten Teresa. Ezkontza seme-



6.10. irudia. Sastarrain baserria.

alabarik gabe hausten baldin bazen, ondasun bakoitza bere jatorrizko enborrera itzuliko zen. Teresa Ganbarak Joan Akertza izendatu zuen fidatzaile. Ezkontza-kontratuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Garratza, Fernando Olazabal eta Domingo Artiga (ikus [XVI. m. (20) 17] agiria).

Egun eta leku berean Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa, Martoanez Sastarrain eta Martin Sastarrain semea elkartu ziren. Martin egun hartan ezkondu zen Maria Antxietarekin. Joan Perezek Martini 40 kintal burdina emango zizkion: 20 Maria Martin Arriola ama zenaren herentziatik zegozkialako eta beste 20 Martinen Maria arreba zenaren parte aita Martoanezek eman ziolako. Sastarrain aita-semeek konpromisoa hartu zuten Joan Perez obligazio hartatik onik ateratzeko.

Jarraian, Martin Sastarrainen arreba Katalina, Maria eta Grazia adingabeek zin egin zuten anaiari emandako 40 kintalengatik ez ziotela ezer eskatuko. Lekuko Pedro Garratza, Domingo Artiga eta Fernando Olazabal medikua izan ziren (ikus [XVI. m. (20) 18] agiria).

- 1520-XI-30ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Teresa Ganbara eta Martoanez Sastarrain senarra azaldu ziren. Teresak, senarrarengandik baimena lortuta, Joan Perez Idiakaizkoari (Liliko jaunari) ordainagiria eman zion. Teresaren alaba Maria Antxieta Martin Sastarrainekin ezkondu zenean, Joan Perez Idiakaizkoak Teresari 19,5 kintal burdina emateko obligazioa hartu zuen. Burdinaren balioa jaso zuelako, Teresa Ganbarak ordainagiria eman zion Joan Perezi. Ordainagirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Martinez Lilikoa apaiza (Domenja Liliren lehengusu propioa), Martin Ibañez Zubiaurrekoa, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Joan Lopez Zelaikoa (ikus [XVI. m. (20) 37] agiria).

Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa, Maria Joaniz Zuatzolakoarekin ezkondu zen, eta 1520ko hamarkadan izan zuten Domenja Lili-Idiakaitz alaba, gero Liliko oinordeko izango zena¹⁸.

6.3.2. Beltran Iraetaren eta Joan Beltran Iraetaren agiriak

- 1520-I-23an, Azpeitian, Zestoako Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Maria Lopez Larrartekoa azpeitiarra (Joan Mendizabal zenaren ama) eta Ana Lasao zestoarra (Domenja Menaren erraina) elkartu ziren. Ana Lasao Beltran Iraetaren emaztea zen.

Domenja Mena zenak urrezko 50 dukat eman behar zizkion Joan Mendizabal zenari, Beltran Iraetak egindako zorragatik, Gipuzkoako korrejidorearen aginduz. Domenja Mena zenak lehenago Joan Mendizabali 25 dukat (zorraren erdia) ordaindu zizkion, eta egun hartan Ana Lasao beste 25 dukatak eman zizkion Maria Lopez amari. Maria Lopezek ordainagiria eman zion Ana Lasari, eta zorra kitaturik geratu zen. Ordainagirian lekuko azpeitiar hauek izan ziren: Martin Saez Goiazkoa eta Domingo Ibañez Arrietakoa (ikus [XVI. m. (20) 3] agiria).

Aipatu beharra dago Beltran Iraeta zestoarrak eta Joan Mendizabal azpeitiarrak auzi luzea izan zutela Irlandara arrantzara itsasontzia bidaltzeko bazkide izan ondoren. Ikus 3.1.2.; 3.2.1. eta 3.3.6. atalak, hurrenez hurren 1511, 1512 eta 1513. urteei dagozkienak.

- 1520-VI-17an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Beltran Iraeta azaldu zen, Iraetako jauna eta Ahaide Nagusia. Pedro Aizarnateak Joan Beltrani urrezko 7 dukat zor zizkion (ikus [XVI. m. (19) 3] agiria). Pedro Aizarnatearen zorra Sebastian Artazubiagak ordaindu zion Joan Beltrani: 3 dobloi (bakoitza 97 txanponekoa) eta 45 txanpon. Urrezko dukatak 48 txanpon balio zuen (1 dukat = 48 txanpon). Beraz, Sebastianek 336 txanpon edo 7 dukat ordaindu zizkion. Beste 3 txanpon ere eman zizkion Sebastianek Pedro Aizarnatearen ondasunak exekutatzeko atera zuten agiriagatik.

Ondorioz, Joan Beltranek ahalordea eman zion Sebastiani Pedro Aizarnateari 7 dukatak eta auzi-gastuak kobratu ahal izateko. Lekuko Joan "Zuri" Edarritzaga, Martin Perez Lizarraraskoa eta Martin Egaña zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (20) 13] agiria).



6.11. irudia.
Aizarnabate edo
Aizarnatea.

- 1520-VIII-15ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Beltran Iraetak eta Pedro Iribarre-na harginak kontratua egin zuten. Joan Beltran (Iraetako jauna) Aizarnako plazan, elizaren ondoan, etxe berria egiten ari zen, eta han Pedrok hamabi besaldi luzeko horma eraikiko zion, lehengo hormaren lodiera eta zabalekoa, ertz bikoitzekoa eta bi leihokoa. Hurrengo irail-eko San Migel egunerako amaituta egon beharko zuen.

Pedro Iribarrenak besaldi bakoitzeko 14 txanpon jasoak zituen. Joan Beltranek, gainera, etxe berriaren ondoan utziko zizkion karea, harea eta harria, horma eraikitzeko. Horrez gain, Pedro Iribarrenak Joan Beltranek Aizarnan zuen beste etxe batean beste horma bat eraikiko zuen, 10-12 besaldikoa. Pedrok 14 txanpon jasoko zituen besaldiko, eta Joan Beltranek materialak eman beharko zizkion.

Kontratuan lekuko Pedro Gebara, Martin Artzuriaga eta Joanto Amezketa zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (20) 24] agiria).

- 1520-VIII-19an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Beltran Iraeta (Iraetako jauna) eta Pedro Bideola aiarra elkartu ziren. Joan Beltranek, Aiako partean, Bedaman, Gildegi baserria berea zuen, eta Pedrori sei urterako errentan eman zion.

Hurrengo irail-eko San Migel egunean hasiko ziren kontatzen sei urteak.

Pedro maizterrak urtero errentan 7 anega gari, 3 anega artatxiki eta 3 anega olo emango zituen abuztuaren amaieran. Eguberrietan bi kapoi emango zizkion Joan Beltrani, eta, bere garaian, bi gaztanbera ere bai. Gildegin Pedrok haziko zuen ganadua erdi bana egingo zuten nagusiak eta maizterrak. Ganadua erabat Joan Beltranek ordaindutakoa baldin bazen, Pedrok hazi eta irabazietatik bere zatia ordaindu arte ganadua Joan Beltranena izango zen guztiz.

Errentamendu-kontratuan lekuko hauek izan ziren: Zestoako Pedro Iribarre eta Joan Saez Paginokoa, eta Asteasuko Joanes Lizalume errementaria (ikus [XVI. m. (20) 25] agiria).

Egun eta leku berean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Beltran Iraeta eta San Joan Gildegi elkartu ziren. San Joan aiarra Joan Beltranen maizter zen Bedamako Gildegi baserrian, baina biak ados jarri ziren beren errentamendu-kontratua eteteko. Kontuak egingo zituzten, eta San Joanek zorrik baldin bazuen, ordaindu egingo zion Joan Beltrani. Lekuko Zestoako Joan Saez Paginokoa eta Pedro Iribarre, eta Asteasuko Joanes Lizalume izan ziren (ikus [XVI. m. (20) 26] agiria).

6.3.3. Artazubiagatarren agiriak

- 1520-I-9an, Altzolarats jauregiko burdinolan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Sebastian Artazubiaga eta Aiako Joango Olazabalegi elkartu ziren. Joangok konpromisoa hartu zuen hurrengo bi urteetan burdinolako morroi-lanak egiteko. Ordainetan urte bakoitzean urrezko 12 florin eta 6 zapata pare (edo hauen balioa dirutan) jasoko zituen.

Sebastianek edo emazteak agindutakoa egingo zuen zamaltzain, basomutil edo morroi gisa. Joango Olazabalegik jadanik jasorik zituen bi urteetako 24 florinak eta 12 zapata pareen balioa. Kontratu hartan lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Artzubiaga, Joan “Beltza” Aranguren, Martin Edarritzaga eta Domingo Arrona (ikus [XVI. m. (20) 2] agiria). Domingo Arrona lekuko hau ez zen Altzolarats jauregiko jaun izandakoa, zeina aurreko urtean hil baitzen. Bi Domingo hauen sinadurak alderatuta garbi ikusten da izen eta deitura bereko bi pertsona izan zirela.

Bestalde, Martoanez Sastarrainek Zestoako Sebastian Artazubiagari 100 kintal burdina zor zizkiolako, 1517-V-24an haiek ordaintzeko konpromisoa hartu zuen (ikus [XVI. m. (17) 23] agiria).

- 1520-III-1ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean azaldu zen Martoanez Sastarrain. Martoanezen fidatzaile ziren zestoar hauek ere hantxe zeuden: Joan Martinez Ibañetakoa, Domingo Artiga, Joan Akertza (Martin Artzubiagaren ordezkari ere bazen) eta Joan Perez Altzolaraskoa (Pedro Baltzola aitagarrebaren izenean). Fidatzaileek ziotenez, Martoanezek Sebastiani ez zion zor osoa ordaindu, eta fidatzaileek ordaindu behar izan zioten, haien ondasunak exekutatu egin zituztelako.

Haren guztiaren ondorioz Martoanez Sastarrainek fidatzaileei 64,33 kintal burdina zor zien. Orduan Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak (Liliko jaunak) zor hura dirutan ordaindu zien aipatutako fidatzaileei, eta Martoanez Sastarrain zor hura Liliko jaunari ordaintzekotan geratu zen. Martoanezek onartu egin zuen zor hura zuela, eta ordaintzeko konpromisoa hartu zuen.

Agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Garratza, Joan Ipintza itsas pilotua eta Martin Perez Lizarraraskoa (ikus [XVI. m. (20) 6] agiria).

- 1520-XI-25ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Otxoa Artazubiagakoa aita aurkeztu zen. Martin Otxoak ordurako hildako honako hauek ere ordezkatu zituen: Joan Fernandez Dornute-

6.12. irudia. Lizarrarats (Lizarraitz) etxea.



gikoa, Joan Ibañez Egurtzakoa, Pedro Lopez Altzolaraskoa eta San Joan Migelez Ganboakoa. Auzia zuten Zumaiako Martin Arizmendirekin eta honen emaztearekin. Ondorioz, Valladolidko Kantzelaritzako Joan Lopez Arrietakoari, Joan Lazkanori, Anton Orori eta beste prokuradore batzuei ahalordea eman zien Martin Otxoak, auzian haien ordezkari izan zedin.

Ahalordean lekuko zestoar hauek izan ziren: Jofre Ibañez Altzolaraskoa, Martin Zuube eta Joan Akertza (ikus [XVI. m. (20) 36] agiria).

6.3.4. Altzolarats jauregiko Juliana Gebaren eta Ana Arretxeren agiriak

- 1520-I-26an, Altzolarats jauregian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Juliana Gebara azaldu zen. Juliana andrea San Joan Arronaren alarguna zen. Ahalordea eman zien Zestoako Joan Martinez Amilibikoari eta Valladolidko Kantzelaritzako Joan Lopez Arrietakoari eta Joan Paternina prokuradoreei, Azkoitiko Isabel Gebara ahizparengandik Elena Lopez Zumaiakoa ama zenaren herentziagatik zegokion senipartea jaso zezaten.


Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Txiriboga, Sebastian Artazubiaga eta Martin Artzubiaga (ikus [XVI. m. (20) 4] agiria).

- 1520-III-5ean, Aian, Zestoako Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domingo Gonzalez Seguiolakoa batxilerra eta osaba Joan Gonzalez Seguiolakoa (biak aiarrak) elkartu ziren. Joan Gonzalezek Zestoako Altzolarats jauregiko Domingo Arrona zenari eta emazte Ana Arretxe (edo Arrese) alargunari 148 kintal burdinako zorra egin zion.

Joan Gonzalezek ondusunak exekutatu egin zituzten eta 50 kintal burdina jaso zituen Joan Otxoa Gorosarrikoak Ana Arretxerentzat, eta haiek Geletako portuan zeuden. Beraz, artean Joan Gonzalezek 98 kintal zor zizkion Ana Arretxe zestoarrari.

Orduan Domingo Gonzalez Seguiolakoa eskribauak 98 kintaleko zorra bere gain hartu zuen. Hurrengo ekaineko San Joan egunetik urtebetera 50 kintal ordainduko zizkion Geletako errenterian Anari, eta handik beste urtebetera gainerako 48 kintalak. Agirian lekuko Aiako Domingo Arruti, Pedro Azkue eta Franzisko Seguiola izan ziren, batxilerraren morroiak.

Jarraian Joan Gonzalez Seguiolakoak aipatutako eskribau eta lekukoen aurrean aitortu egin zuen zorra berea zela, eta ez iloba batxilerrarena. Zor hura ilobari ordaintzera bere burua eta ondusunak behartu zituen (ikus [XVI. m. (20) 7] agiria).



6.13. irudia. Altzolarats jauregiaren aurriak.

- 1520-IV-30ean, Oikiako erreterian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Orio zumaiaarra aurkeztu zen. Martin Diaz Mirubikoa Beduako Lantzarote, Martin, Joan eta Maria Ortiz adingabeen tutore zen, eta Martin Diazek Joan Oriori ahalordea eman zion ordezkari izan zedin.

Joan Oriok onartu egin zuen Altzolarats jauregiko Ana Arretxek (Domingo Arronaren alargunak) 48 kintal burdina eman zizkiola. Oikiako erreterian ipini zizkion zerga guztiak ordainduta. Kintal haiek Ana Arretxeren alaba Maria hain zuzen Otxoa Martinez Beduakoarekin (adingabeen anaiarekin) ezkondu zenean Lantzarote eta anai-arrebei zegokien senipartea zen. Joan Oriok ordainagiria eman zion Ana Arretxeri. Lantzarote eta Martin Beduak zin egin zuten ordainagiri haren aurka ez zirela joango. Ordainagirian lekuko Domingo Dornutegi eta Martin Etxezarreta (Zumaiaiko apaizak) eta Joan Martin Indo zestoarra izan ziren.

Jarraian, eskribau eta lekuko berak bertan zirela, Lantzarote eta Martin Beduak zin egin zuten Joan Oriorengandik 48 kintal burdina jaso zituztela (ikus [XVI. m. (20) 9] agiria).

- 1520-VI-11n, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Altzolarats jauregiko Ana Arretxe azaldu zen. Ana, hain zuzen, Domingo Arronaren alarguna zen. Seme-alaba adingabeen tutore izanik, Anak ahalordea eman zien Bergarako Martin Sarasketari eta Martin Martinez Argizaingoari eta Getariako Joan Martinez Untzetakoa prokuradoreari. Ahalorde haren bidez Bergarako Joan Morga edo Ozaetari urrezko zazpi dukat kobratzen saiatuko ziren, zor hura Joan Morgak Domingo Arronari egin baitzion.

Ahalordean lekuko zestoar haiek izan ziren: Esteban Artazubiaga, Martin Legarda eta Martin Edarritzaga (ikus [XVI. m. (20) 12] agiria).

- 1520-VII-28an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Altzolarats jauregiko Ana Arretxe azaldu zen. Anak ahalordea eman zion Zestoako Joan Otxoa Gorosarrikoari, haren izenean Asteasuko

Pedro Otxoa Etxeandikoari 30 kintal burdina kobratzen ziezazkion.

Ahalordean lekuko Joan Otxoa Artazubiagakoa apaiza, Martin Artzuriaga eta Joan Artiga zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (20) 19] agiria).

- 1520-VIII-12an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domingo Arronaren Ana Arretxe alarguna azaldu zen. Ahalordea eman zien Zestoako Joan Martinez Amilibikoa eskribauari eta Joan Martinez Indokoari; baita Valladolidko Joan Lopez Arrietakoari, Anton Orori, Joan Lazkanori eta abarri ere.

Ana Arretxek auzia zuen Valladolidko Kantzelaritzan Getariako Pedro Ibañez Aldamarkoarekin, Domingo Arrona zenak sinatutako obligazio-agiri bategatik. Ana Arretxek bere prokuradoreak izendatu zituen. Lekuko zestoar haiek izan ziren: Joan Otxoa Artazubiagakoa, Domingo Urbieta, Joan Urbieta eta Martin Edarritzaga (ikus [XVI. m. (20) 22] agiria).



6.14. irudia. Getariako Aldamar etxea.

6.3.5. Zestoako bi ezkontza-kontratu, etab.

- 1520-V-20an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Fernando Olazabal medikua e Lopeitza Ariztondo elkartu ziren. Lopeitza Joaniko Ganbararen emaztea eta Martin Ganbararen ama zen. Martin Ganbararen eta Maria Anton Indoren arteko ezkontza-kontratua egin zuten. Maria Anton, Martin Indoren eta Maria Joango Ausoroetxearen alaba zen. Maria Joango alarguna Fernando Olazabalen emaztea zen orduan.

Lopeitza Ariztondok ezkonberriei Zestoako erre-baleko etxe nagusia eta ondoko beste etxea eman zien, arreo, baratze eta lurrekin. Lopeitzak eta haren senarrak, ordea, beren bizialdian ondasun haien gozamenaren erdia izango zuten. Bestela ezkonberriek mantendu beharko zituzten eta hiletak ere haiek egin beharko zizkieten.

Fernando Olazabal medikuak Maria Antoni dote gisa 40 dukat, bi ohe, jantziak eta Indoko hiru gaztainondo emango zizkion. Hurrengo maiatzeko Pazko egunean 13,3 dukat (herena) emango zizkion, handik urtebetera beste 13,3 dukat eta handik urtebetera azken 13,3 dukatak. Oheak eta arreoa Maria Anton senarrarekin Lopeitzaren etxera bizitzera joaten zenean emango zizkion.

Fernando Olazabalek fidatzaile zestoar hauek aurkeztu zituen: Domingo Artiga eta Domingo Zabala. Hauek baiezkota eman zuten. Ezkontza hausten baldin bazen, ondasun bakoitza jatorrizko enborrera itzuliko zen. Fernando Olazabalek konpromisoa hartu zuen fidatzaileak obligazio hartatik onik aterako zituela. Ezkontza-kontratuan lekuko hauek izan ziren: Debako Domingo Agirre eta Zestoako Migel Apategi, Martin Ibañez Zubiaurrekoa eta Joan Igartzza (ikus [XVI. m. (20) 10] agiria).

- 1520-IX-14an, Zestoan, Blas Artazubiagaren aurrean ezkontza-kontratua egin zuten Martin Indok eta Katalina Urbietak. Martinen ama Maria Joango Ausoroetxea zen, eta aita Martin Indo zena. Maria Joango

Fernando Olazabal medikuarekin ezkondata zegoen. Martin eta Katalina Joan Otxoa Artazubiagakoa apai-zak ezkondu zituen. Denak ere zestoarrak ziren.

Katalinaren ama Maria Beltran Urbietak alarguna zen, eta dote gisa alabari 130 kintal burdina agindu zituzten. Martin senarraren zaintzaile Martin Ondalderi emango zituzten lau urtetan banatuta (urte bakoitzean 32,5 kintal hurrengo martxoko Andre Mariaren egunean hasita). Kintal haiek Beduako erreterian ipinitu zituen eta Martin Indok eta anai-arrebek zituzten zorrak ordaintzeko izango ziren. Martin Ondaldek, berriz, senar-emazteei Indoko baserria bere lur, baso eta ondasunekin emango zien.

Maria Beltran Urbietak Katalina alabari burdinaz gain behia bere txahalarekin, sei ardi, jantzitako lau ohe, kutxa bat eta arropak agindu zituzten Indora bizitzera joaten zenerako. Ezkontza legezko seme-alabarik izan gabe hausten baldin bazen, ezkontzara eramandako ondasun bakoitza bere enborrera itzuliko zen. Maria Beltranen fidatzaile Joan Urbietak eta Domingo Artiga izango ziren. Ezkontza-kontratuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Sebastian Artazubiaga, Joan Artiga, Joan Etorraetxea eta Domingo Beltran Urbietak (ikus [XVI. m. (20) 33] agiria).

- 1520-VIII-30ean, bestalde, Zestoako Txiribogan Zumaiako Joan Perez Elorriagakoa eskribauaren aurrean Joan Dominguez Areitzagakoa eta Martin Diaz Mirubikoa elkartu ziren.

Domenja Zugastiren eta Maria Otsangoren ize-nean Joan Domingez Txiribogako etxe, errota, burdinola eta ondasunez jabetu zen 1518-IX-30ean, Pedro Zumaiak (edo Txiribogak) eta Katalina Diaz Mirubikoa amak zorra ordaindu ez zutelako. 1520-VIII-30ean, berriz, Martin Diaz Mirubikoak 70 kintal burdinako zorra eta 1.060 maraiko auzigastuak Joan Domingez Areitzagakoari ordaindu zituzten. Ondorioz, Txiribogako ondasunen jabe Martin Diaz egin zen. Agirian lekuko Pedro Zumaiak, Martin Txiriboga anaia eta Pedro Lopez Areitzagakoa zestoarrak izan ziren.

Jarraian, Joan Domingez Areitzagakoak Txiribogako etxetik kanpora atera zituen Pedro Zumaia eta Katalina ama, eta Martin Diaz sartu zuen, jabea zelako. Errotara eta burdinolara ere sartu zen Martin. Lekuko Joan Etxezarreta (Etxezarretako etxejabea), Martin Txiriboga eta Pedro Lopez Areitzagakoa zestoarrak izan ziren.

Gero Martin Diazek Pedro Zumaia eta ama Katalina sartu zituen Txiribogako etxera, errotara eta burdinolara, eta Martin Diaz nagusiaren maizter geratu ziren (ikus [XVI. m. (20) 35] agiria).

6.3.6. Maria Joango Artigaren eta Katalina Arberen testamentuak

- 1520-IV-10ean, Zestoako Ariztondo etxean, Maria Joango Artigak bere seme Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean testamentua egin zuen. Maria Joango Martin Otxoa Artazubiagakoaren emaztea zen. Lehenbizi haren gorputza Zestoako elizan, Ariztondo etxearen hilobian lurpera zezatela agindu zuen. Martin Otxoaren arbasoak eta hildako seme-alaba batzuk ere hantxe zeuden. Maria Joangori ohiko hiletak egingo zizkioten.

Gero ongintzarako aginduak eman zituen: gatibu kristauak askatzeko (zilarrezko florin bat), Zestoako elizarentzat (zilarrezko bi erreal), Aizarnako elizarentzat (zilarrezko erreal bat) eta Santa Engraziarentzat (bi txanpon). Zestoako elizan 30na meza emango ziztuzten haren arimaren alde Esteban Aisoro bikarioak eta Domingo Urbietak apaizak. Guadalupeko Andre Mariaren elizara pertsona bat bidaliko zuten erromes. Jasotako garagarraren eta gainerako aleen hamarrenak elizari emango zizkioten testamentu-betearazleek.

Ondoren Maria Joango Artigak zor zituenak eta zor zizkiotenak zerrendatu zituen. Esteban Akertzaren emazte Katalina Artigari (ahizpari) 10 edo 12 txanpon zor zizkion, eta Lopeitza Aizarnari hiru txanpon eta erdi. Blas Artazubiaga seme zaharrenari botikengatik eta Maria Joango Azpeitian preso egon zenean egin zituen gastuengatik zorra egin zion.



6.15. irudia. Zestoako elizako erretaula.

Bestalde, Maria Joangori Joan Urbietak 35 txanpon zor zizkion, Maria Joango Kamiok 14 txanpon sagardoagatik eta Maria Egurtzak 4,5 txanpon sagardoagatik. Maria Joango Artigak oheak, izarak eta arropak ere bazituen. Arropa asko Martin Otxoa senarrak alaba Maria Martinezi emanarazi zizkion.

Maria Joango eta Martin Otxoa senar-emazteek Blas Artazubiaga seme eskribaua hautaturik zuten oinordeko izateko. Testamentu-betearazle hauek izango ziren: Martin Otxoa Artazubiagakoa senarra, Blas Artazubiaga eta Joan Otxoa Artazubiagakoa semeak, Domingo Artiga anaia eta Sebastian Artazubiaga eta Esteban Artazubiaga (Martin Otxoaren anaiak). Testamentuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Joango Artiga, Jofre Altzolarats eta Martin Ganbara (ikus [XVI. m. (20) 8] agiria).

- 1520-IX-1ean, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Katalina Arbe andreak, Petri edo

Pedro Oiartzunen emazteak, testamentua egin zuen. Gorputza Arroako Santa Anaren elizan hobiratzea nahi zuen. Han egingo zizkieten hiletak eta urteurreneko elizkizunak.

Ondoren ongintzarako aginduak eman zituen: kristau gatibuak askatzeko, Arroako Santa Anaren elizarako, Itziarko elizarako, San Joan Olaniko elizarako, Debako elizarako, Debako Santa Katalina ermitarako, Debako Satiagorako, Sasiolako monasteriorako, Eloorriagako elizarako, Indanetako San Martinarako, Beduako San Lorenterako, Oikiako elizarako, Aizarnazabalgo elizarako eta Zestoako elizarako.

Arroako elizan 30na meza emango zituzten haren arimaren alde Domingo Areitzaga bikarioak eta Joan Otxoa Artazubiagakoa eta Martin Etxezarreta apaizek.

Jarraian Katalina Arbek bere zorrak aitortu zituen: Arteagako Txomen neskari dukat erdia eta Lope Erkisketaren Madalen alabari 30 txanpon. Ondoren, jasotzeko zeuzkan zorren zerrenda luzea egin zuen. Hona hemen zordun haietako batzuk: Marina Diaz Beduakoa (urrezko 20 dukat), Antso Guardikoa (dukat bat eta 14 txanpon), Domingo Olea (dukat bat), Joan Amilibia zumaiarra (dukat bat), Katalina Bedua (16,5 txanpon), Joan Erretola (4 txanpon), Joan Zubeltzu (11 txanpon), Pedro Txiriboga (4,5 txanpon), Joan Arano (28 txanpon), Ramus Zabala (dukat erdia), Martin Izarraga mandazaina (5 txanpon), Martin Pagino (16 txanpon), Joan Oriden mandazaina (36 txanpon), Joan Nafarra (erreal ingeles bat), Pedro Eizagirre azpeitiarra (8 txanpon), Pedro Zozabarro (2 dukat eta 30 txanpon), Maria Egia getariarra (20 txanpon), etab.

Horrez gain, Katalina Arbek bere beste ondasun batzuk izendatu zituen: erosi berri zuen etxea eta bertako lanetan gastaturiko 38 dukat, oheak, arropak eta arrea.

Oinordeko unibertsal alaba Maria Oiartzun izendatu zuen. Testamentu-betearazle hauek izango ziren: Pedro Oiartzun senarra, Otxoa Arrona suhia eta Maria Oiartzun alaba. Testamentuan lekuko debar hauek

izan ziren: Domingo Areitzaga apaiza, Kristobal Goienetxea eta Joan Migelez Olidengoa (ikus [XVI. m. (20) 37] agiria).

6.3.7. Zumaiako Kontzejuaren bilera eta Zestoakoarena

- 1520-VIII-14an, Zumaian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Andres Aguinaga (lizentziatua) eta Frantzisko Indaneta alkateak zeuden beren agintemakilarekin. Zumaiako herritar asko ere hantxe ze goen. Orduan Gipuzkoako korrejidorearen merioorde Andres Jauregi agertu zen, bere aginte-makilarekin. Martin Alonso Segura korrejidoreordeak bidalita joan zen Zumaiara mandatu bat egitera.

Zumaiako bi alkateek ziotenez, Gutierre Quijada korrejidorea eta korrejidoreordea ez ziren epaile unibertsalak Probintzian. Gainera Probintziaren gehiengoak mandatu haren aurka eskabidea egina zien errege-erreginei.

Ondoren, alkateen aginduz, merioordeari indarrez aginte-makila kendu egin zioten. Andres Jauregik protesta egin zuen, eta eskribauaren testigantza eskatu zuen. Lekuko Zestoako Joanes Potzueta eta Martin Otxoa Artazubiagakoa izan ziren, besteak beste (ikus [XVI. m. (20) 23] agiria).

- 1520-IX-21ean, Zestoan, Joan Martinez Ibañetakoa eskribaua bertan zela, Zestoako Kontzejua bildu zen. Bertan, besteak beste, zestoar hauek zeuden: Fernando Olazabal alkatea, Domingo Arretxe fiela, Martin Zuube (Esteban Akertza zinegotziaren orde), Pedro Egaña zinegotzia, Joan Martinez Amilibikoa eta Blas Artazubiaga eskribauak, Domingo Lizarrarats, Martin Fernandez Edarritzagakoa, Martin Otxoa Artazubiagakoa, Joan Perez Akoakoa, Joan Akertza, Sebastian Artazubiaga, Joan Perez Arretzekoa, Joan Otxoa Gorosarikoa, Joan Artiga, Joan Lizarrarats, Domingo Etorra, Bartolome Artzubiaga, Esteban Artazubiaga, Joan Urbieta, Joan Arano, Joan Erretzabal, Domingo Arretxe gaztea, Blas Lasao, Martin Zuube, Martin Areria, Lope Gallain, Joan "Zuri", Jofre Altzo-

6.16. irudia. Aizarnako Egaña baserria.



larats, Migel Santxez San Miliangoa, Joan Egaña gaztea, Martin Araitz, Pedro Zuube, Anton Edarritzaga, Pedro Santxez Errezustakoa, Pedro Altzolarats, Tomas Egaña Martin Ibañez Zubiaurrekoa, Joan Kamio, Domingo Baztan, Pedro Garratza, Joanes Potzueta, Joan Altzolarats, Pedro Ezenarro, Martin Aspe, Joan Errotaetxea, Joan Martinez Akoakoa, Martin Enparan, Anton Altzolarats, Joan Martinez Ibañetakoa, Domingo Zabala, Martin Ondalde, Joan Lizaso Ormaetxekoa, Martin Perez Kortazarkoa, Joan Martinez Indokoa, Domingo Lizasoeta eta Joanto Amezketa.

Zestoako Kontzejuak aspaldi-aspalditik zuen, erregeek emanda, Zestoako hiribilduko eta Aizarnako elizetako erretore, bikario eta apaizak Iruñeko apezpikuari aurkezteko eskubidea. Aurkeztu ondoren apezpikuak bi eliza haietako karguak ematen zizkien. Urte hartan, ordea, Fortun Iraetak, bikario izandako Lope Iraetaren ilobak, Erroman Aita Santuarengandik gutunak lortuta Zestoako bikario izaten saiatu zen, Zestoako Kontzejuaren aurkezpen-eskubidea bazter utzita.

Ondorioz, Zestoako Kontzejuak dei egin zion Fortun Iraetari bere gutunekin aurkez zedin. Erregekontseilukoek ere dei egin zioten Fortuni. Zestoako

Kontzejuari agindua eman zion bikario-kargua har ez zezan eta hamarrenak edo beste ezer eman ez ziezaioten.

Orduan Zestoako Kontzejuak, auzian ordezkari izan zitezten, prokuradore zestoar hauek izendatu zituen: Joan Martinez Amilibikoa (Zarauzko hiribilduko eskribaua), Domingo Lizarrarats (edo Artiga), Blas Artazubiaga, Pedro Zumaia, Joan Urbieta eta Joan Otxoa Gorosarikoa. Ahalordea eman zieten Iruñeko apezpikutegian, Zaragozako artzapezpikutegian, Aita Santuaren aurrean edo edozein auzitegi zibiletan prokuradore izan zitezten. Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Zuube, Joango Lizarrarats eta Domingo Aspe (ikus [XVI. m. (20) 32] agiria). Dena den, 1522. urtean Fortun Iraeta azaltzen da Aizarnako elizako erretore.

- 1520-XI-6an, Aizarnako plazan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean zestoar hauek elkartu ziren: Martin Fernandez Edarritzagakoa alkatea, Martin Gartzia Lasakoa, Blas Lasao lehengusua, Joan Martinez Ibañetakoa, Joan Arretxe eta Domingo Arretxe. Joan Urkia apaizak elizako ondasun batzuk saldu zituen eta haien berri eman zuen.



6.17. irudia. Santa Engraziako ataria.

Joan Perez artzainak zin eginda aitortu zuenez, hamar bat hilabete lehenago Fortun Iraetaren izenean 86 ardi eta ahuntz eta zaldi bat jaso zituen. Gero 20 arkume eta 31 antxume jaio ziren. Guztira, beraz, 98 buru zeuden. Zazpi ahari saldu zizkion Zumaiako harakinari, eta beste hiru ere bai. Antxume eta arkume batzuk ere saldu zituen.

Lihozko 80 azao Bedamako Linatzetan zeuden, Santa Engraziako ermitarenak. Zortzi anega gari ere bildu ziren ermitarako, eta han jan ziren. Gainera Joan Perez artzainak Joan Goia errezildarrari sei ahuntz beren antxumeekin saldu zizkion hiru dukatean.

Joan Urkiak elizako bi liburu omen zeuzkan, eta bertan utziko omen zituen. Aitorpen hartan lekuko Blas Lasao eta Pedro Askatsua izan ziren (ikus [XVI. m. (20) 34] agiria).

6.3.8. Joan Martinez Ibañetakoaren, Joan Otxoa Gorosarrikoaren eta abarren agiriak

- 1520-VI-18an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Sancho de la Bodega aurkeztu zen. Hau Portugaleteko Iñigo Saez del Casal-en faktore edo ordezkari zen. Zestoako Joan Martinez Ibañetakoak eta San Joan semeak Iñigori 28.000 marai zor zizkieten, eta zor haren zati bat ordaindu zuten hauek emanda: Gaztelako urrezko 16 dobloi berri, Portugalgo urrezko bi “manuel” (1 “manuel” = 10 dukat) eta Gaztelako beste bi txanpon (bakoitza 4 dukatekoa). Jasotako zatiaren ordainagiria eman zien faktoreak aita-seme zestoarrei.

Ordainagirian lekuko Martin Ibañez Zubiaurrekoa, Martin Zuube, Joan Zuube eta Martin Lizarrarats izan ziren (ikus [XVI. m. (20) 14] agiria).

- 1520-XI-9an, Valladolidtik, Joana erreginak eta Karlos erregeak gutun betearazlea bidali zieten Gipuzkoako agintariei eta haien erreinuetako gainerakoei. Alde batetik Zestoako Joan Martinez Ibañetakoak eskribauak eta Azpeitiko Pedro Eizagirre apaizak, Domingo Ibañez Arrietakoak eta Marina Ibarluzek auzia zuten Esteban Eztiolarekin eta honen arreba Maria, Marina eta Grazia Eztiolarekin. Anai-arrebak Joan Eztiola zenaren eta Katalina Aisoro zenaren seme-alaba adingabeak ziren, eta tutore Zestoako Esteban Aisoro bikarioa zuten.

Marina Ibarluzek auzia lehenbizi Gipuzkoako korejidore 1512-1513an izandako Rodrigo Vela Nuñez-en aurrean ipini zuen, Joan Eztiola azpeitiarrak 10.000 maraiko zorra ordaintzen ez ziolako. Katalina Aisoro emazteak zioenez, senarrak ez zuen ondasunik, baina Joan Otxoa Errekaldekoa merioordeak Joan Eztiolak Azpeitian zituen lurak bahitu egin zizkion. Orduan Katalinak jakinarazi zuenez, bahitutako ondasun haiek hipotekatuta zeuden, bere dotekoak zirelako, hau da, ezkontzara 110 kintal burdinako dotea ekarri zuelako.

Gero Gipuzkoako de la Gama korrejidoreak (1514-1515) Joan Eztiolaren seme-alabei auzitara dei egin zien, eta gero jarraipena Luis Perez Palentziakoa korrejidoreordeak eman zion auziari. Esteban Eztiolak eta bere arreba adingabeek Zestoako bikario Esteban Aisoro osaba zuten tutore eta zaintzaile. Orduan Joan Eztiola zenaren hartzekodunak azaldu ziren auzian, beren zorra kobratu nahian. Bakoitzak bere eskariak egin zituen, kobratzeko lehentasuna zutela argudiatuta.

Gero Gipuzkoako Pedro Nava korrejidoreak (15118-1520) epaia eman zuen. Joan Eztiola zenari bahitutako ondasunak enkantean saldu egingo ziren, eta hurrenkera honetan ordainduko zitzaaien hartzekodunei: 1) Joan Martinez Ibañetakoari (urrezko 30 gaztelau); 2) Marina Ibarluzeri (10.000 marai); 3) Domingo Ibañez Arrietakoari (24 kintal burdina); eta 4) Pedro Eizagirreri (urrezko 12 dukat). Horien ondoren kobratuko zituzten Joan Eztiolaren seme-alabek amaren doteko 110 kintal burdina eta zilarrezko katilua. Gainerakoarekin auzi-gastuak ordainduko ziren.

Ondoren, Esteban Eztiolaren aldeak auzia Valladolidko Kantzelaritzara eramane zuen, eta han bi aldeak lehiatu ziren. Esteban Eztiolaren aldeak 1495-VII-

11n Azpeitian Joan Perez Eizagirrekoa eskribau zenaren aurrean Joan Eztiolak eta Katalina Aisorok Maria Olaberrietari emandako ordainagiria aurkeztu zuen, Katalinak bere lehen senar Migel Berrasoetarekin ezkondu zenean 110 kintal burdinako dotea ekarri zuelako.

Auziak Valladoliden jarraipena izan zuen, epaia eman zuten arte: Pedro Nava korrejidoreak bere epaia gaizki eman zuen, eta Joan Eztiolaren ondasunak exekutatuta lehenbizi Esteban Eztiolak eta arrebek kobratuko zuten amaren dotea. Gero gainerako hartzekodunek kobratuko zuten, korrejidoreak erabakitako hurrenkeran.

Maria Ibarluzek gora jo zuen epaiaren aurka, eta Kantzelaritzan, berrikuspen-mailan, beste epai bat eman zuten, aurrekoa berretsiz eta onetsiz. Esteban Eztiolak eta arrebek lehentasuna izango zuten. Auzi-gastuak alde bakoitzak bereak ordainduko zituen (ikus [XVI. m. (20) 35] agiria).

- 1520-VIII-20an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Otxoa Gorosarrikoa azaldu zen. Konpromisoa hartu zuen Eibarko Joan Martinez

6.18. irudia. Aizarnako Aisoro (Autsoro) baserria.



Malleakoari ehun kintal burdina pletinatan emateko (pletina bakoitza 2 “ertz” pisukoa izanik). Geletako errenterian utziko zizkion, zerga denak ordainduta, hurrengo Eguberri egunerako. Kintal haien balioa urrezko dobroitan jasoa zuen Joan Otxoak, Joan Martinezen faktore Ataguren ermuarrak emanda.

Obligazio-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Sebastian Artazubiaga, Anton Altzolarats eta Bizente Ezenarro (ikus [XVI. m. (20) 27] agiria).

- 1520-VI-1ean, Zestoan, Fernando Olazabal alkaterearen eta Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Maria Perez Larretzekoa azaldu zen, ondoan Pedro Artiga seme adingabea zuela. Maria Perez Zestoako Martin Artiga itsas pilotu zenaren emaztea zen. Martin Malagan hil zen, eta haren urrezko 33 dukatak, arropak, armak eta abar Joantxo Tolosak omen zeuzkan Granadako erreinuko hiri hartan.

Pedro Artiga seme adingabeak ondasun haiek beregana zitzan, tutorea behar zuen, eta Maria Perez amak Zestoako alkateari eskatu zion. Fernando Olazabalek Maria Perez Larretzekoa izendatu zuen Pedro Artigaren tutore, eta Maria Perez amak zin egin zuen bere eginkizunak zintzo beteko zituela. Maria Perez tutoreak fidatzaile Domingo Zabala eta Pedro Garra-

tza zestoarrak izendatu zituen, eta hauek onartu egin zuten fidatzaile izatea. Maria Perezek konpromisoa hartu zuen bi fidatzaile zestoarrak obligazio hartatik onik ateratzeko.

Jarraian, Maria Perez Larretzekoak ahalordea eman zion Bergarako Andres Arteagari Malagan Martin Artiga zenaren ondasunak eskura zitzan eta behar ziren prokuradoreak izenda zitzan. Martin Artigak Malagan gaixoardian egindako gastuak eta haren hiletetan egindakoak deskontatu egingo zituen Andres Arteagari. Joan Arretxe izan zen agiri hartako lekukoetako bat (ikus [XVI. m. (20) 11] agiria).

- 1520-VI-18an, Aizarman, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Lopez Zelaikoa eta Katalina Askatsua senar-emazteak aurkeztu ziren. Katalinak senarraren baimena eskatu eta lortu egin zuen eskritura hura egiteko. Katalina emaztea Joan Askatsua zenaren eta Maria Joango Askatsua zenaren alaba zen. Haiek Katalina alabari dote gisa urrezko 100 florin, oheak, arropa eta beste zenbait gauza agindu zizkionten Joan Martinez Ibañetakoa eskribauak egindako ezkontza-kontratuan.

Harrezkero Martin Lopez eta Katalina senar-emazteek dote osoa jaso zuten Pedro Askatsuk eta Maria



6.19. irudia. Arroako Larretxezar.

Joango Askatsua emazteak emanda. Ondorioz, Martin eta Katalinak ordainagiria eman zieten eta konpromisoa hartu zuten seniparteagatik ez zutela beste ezer eskatuko. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Gartzia Lasakoa, Joan Igartza, Martin Zuube eta Joan Otxoa Gorosarrikoa (ikus [XVI. m. (20) 15] agiria).

- 1520-VII-2an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribaua bertan zela, Zestoako Joanto Amezketak mandoa saldu zion Zumaiako Martin Etxaberi urrezko sei dukatean. Hurrengo abuztuko Andre Mariaren egunean ordainduko zizkion. Salerosketan lekuko izan zituen Domingo Baztan eta beste zenbait (ikus [XVI. m. (20) 16] agiria).

- 1520-VII-28an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Sebastian Artazubiaga eta Domingo Arretxe, "Amezketa" deitutakoa, elkartu ziren. Joan Martinez Amilibikoa eskribauak egindako agiriaren bidez Domingok Sebastiani zorra egin zion, eta zorraren zati bat (urrezko 14 dukat izan ezik) ordaindu egin zion. Sebastianek ordaindutako zatiaren ordainagiria eman zion. Lekuko Domingo Urbieta apaiza, Joan Lopez Zelaikoa eta Martin Zelaia zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (20) 20] agiria).

- 1520-VII-28an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Joan Egaña eta Martin Otxoa Gorosarrikoa zestoarrak azaldu ziren. Joaneke Martini zaldia erosi zion sei dukatean, eta bi epetan ordainduko zion: hiru dukat hurrengo Pazko garizumakoan eta beste hiru hurrengo Santa Ana egunean. Obligazio-agirian lekuko Pedro Egaña zaharra eta gaztea eta Sebastian Artazubiaga izan ziren (ikus [XVI. m. (20) 21] agiria).

- 1520-VIII-26an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Esteban Akertzak hainbat pertsonari ahalordea eman zien. Hauek ziren delako pertsonak: Katalina Artiga emaztea, Joan Otxoa Artazubiagakoa apaiza, Martin Zuube, Joan Akertza, Domingo Artiga, Migel Zulaika zurgin-maisua (aiarra), Joango Etxenagusia (aiarra), Antonio Atxaga, Pedro Ubaiar, Joan Lopez Etxanizkoa eta Joan Martinez Untzetakoa (azken lauak korrejidorearen entzutegiko prokuradoreak).

Ahalordearen bidez Joan Errekondori, Domingo Aitzagari eta beste edonori Egurrolako burdinolako errenta eta eskubideengatik Esteban Akertzari zor ziotena kobratzen saiatuko ziren. Behar izanez gero, auzitara joko zuten. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Lizarrarats, Joan Artiga eta Martin Artzuriaga (ikus [XVI. m. (20) 28] agiria).

- 1520-VIII-31n, Zestoan, Martin Perez Lizarraskoa Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean azaldu zen. Martinek ekialdeko lurraldeetara joan behar zuen bere negozioak bideratzera. Bitartean auzi kriminala zeukan alaba Maria Perez Lizarraraskoarekin eta Blas Lasao suhiarekin (jostunarekin). Maria alaba, gainera, preso egon zen eta halaxe zegoen.

Ondorioz, gai hura eta beste zenbait bideratzeko Martinek Joan Perez Idiakaitz-Lilikoari ahalordea



6.20. irudia. Lili jauregiko eskuineko garita.

eman zion, haren prokuradore izan zedin. Ahalordean lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Otxoa Artazu-biagakoa, apaiza, Pedro Otxoa Igartzakoa, eskribaua, eta Joan Artiga.

Jarraian, lekuko berak aurrean zirela, Martin Perez Lizarraraskoak emazte Maria Otxoa Altzolaraskoari ahalordea eman zion, dotea kobratzeko edo beste edozein ondasun edo diru jaso ahal izateko (ikus [XVI. m. (20) 30] agiria).

Azpeitian, bestalde, urte hasieran (1520-I-2an) Joan Akemendi eskribau azpeitiarraren aurrean Joan Berrasoeta eta Joan Martinez Lasakoak eskribaua elkartu ziren. Joan Berrasoetak Joan Martinezen aita Martin Lopez Lasakoari urrezko 20 dukat eta erdi zor zizkion. Haiek jasotzeko eskubidea Joan Martinez semeak zuen, eta Joan Berrasoetak hiru urtean ordainduko zizkion: herena urtebete barru, bigarren herena handik urtebetera eta hirugarren herena handik beste urtebetera.

Lekuko azpeitiar hauek izan ziren: Joan Migelez Olaberrietakoa (Areitzuriagako olagizona), Migel Zurbano batxilerra eta Joan Zurbano (ikus [XVI. m. (20) 1] agiria). Hemen aipatzen den Joan Martinez Lasakoak eskribaua, gure iritziz, Pedro Oñatzekin batera 1519an Azpeitian Enparan etxearen ondoan Gartzia Lopez Antxietakoa erahil zuena da.³ Burua eta gorputza sastakatu zioten bi hiltzaileek. Hilketa haren ondoren Azpeitiko Soreasuko erretoretza Joanes Antxietari kendu egin zioten, eta Martin Gartzia Oñazkoak (Loiolako jaunak) Pedro Lopez Oñazkoak anaiari eman zion elizako erretore-kargua¹⁹.

6.3.9. Gipuzkoako Batzarrak, komuneroen altxamendua, etab.

- 1520-II-27an, Karlos V.a erregeak Gipuzkoako Probintziari Burgosko Santa Maria del Campo-tik bi gutun bidali zizkion: bata hura inperioko lurraldeak gobernatzera zihoalako mugak ondo zain zitzaten, eta bestea, Naiarako dukeak (Nafarroako erregeordeak) eskatutakoan Nafarroa defendatzera joan zitezten.

- 1520-IV-4an, Santiagotik Gutierre Quijada izendatu zuten Gipuzkoako kapitain jeneral, eta geroxe-ago, apirilaren 21etik maiatzaren 1era, Ordizian izan ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Probintziak Valladolida prokuradoreak bidali zituen Gutierre Quijada probintziara etor ez zedin. Pedro Nava korrejido-rearen agintaldia urte hartako ekaina arte luzatu zen. Ordiziako Batzarretan 500 marai eman zizkieten Zestoan ermandade-alkate izan zen Blas Lasaori.

1520. urteko maiatzean Gaztelako komuneroak altxatu egin ziren Toledon, eta ekainaren lehen egunean bildu ziren Gipuzkoako Batzar Bereziak Usarragan.

1520-VI-15ean errege-dekretu baten bidez Getariari 20.000 maraiko kreditua exijitu zioten turkoen aurka ontzidia armatzeko.

- 1520-VI-30ean Azkoitiko Basarten bildu ziren Gipuzkoako Batzar Bereziak. Gipuzkoako hiribilduak bi taldetan banatuta zeuden. Batean Tolosa, Hernani, Segura, Azkoita, Azpeitia, Arrasate, Deba, Mutriku, Getaria, Zestoa, Zumaia, Eibar eta beste zenbait zeuden. Bigarren taldean Donostia, Bergara, Elgoibar, Errenteria, Usurbil, Zarautz, Orío, Leintz Gatzaga eta beste batzuk zeuden. Bigarren taldekoak errege-erreginen alde eta korrejido-rearen alde egin zuten.

- 1520-VII-11n, Karlos V.a erregeak Gipuzkoari pribilegioa eman zion bidesaria ordaintzetik libre gera zedin. Zerga kendu zioten, alegia.

- 1520-VII-28an Bidaniko Usarragan bildu ziren Gipuzkoako Batzar Bereziak. Hamarren zaharra ize-neko zerga azter zezala agindu zioten Antonio Atxagari. Irailaren 6an Hernanin bildu ziren Batzar Bereziak, eta Ordenantza berriak onartu zituzten.

- 1520-IX-13an Basarten Batzar Bereziek erreinuko Adriano kardinal gobernadoreari bakea ekarriko zuen korrejidorea bidal zezala eskatu zioten. Vazquez de Acuña lizentziatua nahi zuten korrejido-retzat, eta ez Gutierre Quijada.

- 1520ko irailean Tordesillasko Batzarrak, komuneroenak, Salvatierrako kondea euskal probintzietako eta Gaztelako merindadeetako kapitain jeneral izendatu zuen. Elgoibarko Nikolas Intsausti Bizkaira eta Gipuzkoara bidali zuten.

- 1520-IX-18an, Naiaran, hiria altxatu egin zen Nafarroako erregeordearen aurka, baina hau bere tropekin joan eta, eraso ondoren, hiria arpilatu egin zuen. Hiriari eraso egiten Loiolako San Inazio aurrean ibili zen, baina arpilatzen ez.

- 1520-IX-25ean Usarragan Batzar Bereziak bildu ziren. Bizkaiko eta Arabako prokuradoreak ere hantxe ziren; baita Getariako ermandade-alkate Santiago Gebara ere.

Urte hartako azaroan, Arrasatek burdinazko bolak eta beste zenbait arma hornitu zizkien Medina del Campo-n Juan Padillari eta komuneroei.³

- 1520-X-31n, Briviescatik Karlos erregeak gutuna bidali zion Probintziari. Han zioenez, A Coruñan itsasoratu zen urte hartan Erroma-germaniar inperio santua bere gain hartzeko, baina harrezkero altxamenduak izan ziren eta Probintziari leialtasuna eskatu zion.²⁰

- 1520-XI-11n, Medina de Rioseco-n Adriano kardinalak Gipuzkoako korrejidore Vazquez de Acuña lizentziatua izendatu zuen.

- 1520-XI-2tik 14ra bitartean Azkoitian ospatu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Gehienek ez zuten Kristobal Vazquez Acuña-koa korrejidoretzat onartu. Donostiako taldeak protesta egin zuen Batzarrak erabakitakoagatik.

Batzuek ziotenez, Vazquez de Acuña onartzeko korrejidorea zen, baina Probintziak hura baztertuta komuneroen alde egin zuen. Azaroaren 16an Azkoitiko Batzarrean Nikolas Intsaustik ekarrita Tordesillasko Batzarraren gutuna irakurri zen. Azaroaren 22an, berriz, Acuña lizentziatuak Azkoitia utzi eta



6.21. irudia. Hernaniko eliza.


Donostiara joan zen.

- 1520-XI-27/30 bitartean Usarragan Batzar Bereziak bildu ziren. Donostiaren taldekoak ez ziren bertan izan. Vazquez de Acuña-aren aurkako jarrera hartu zuten Batzarretan. Abenduaren 1etik 15era Biddanian egin zituzten berriz Batzar Bereziak, eta abenduaren 4tik aurrera Hernanin. Vazquez de Acuña-ri Probintzietatik irteteko gonbitea egin zioten. Batzarrak Segurako Joan Ugarte zabali 17 zezen erosi zizkion. Batzar haietan ibilitako bat Zumaiako Martolo Txiriboga zen. Horrela aritu ziren tirabiran erregezaleak eta komuneroen aldekoak³. Komuneroek altxamendurako izan zuten arrazoietakoa bat Karlos erregearen gorteak zuen atzeritar kutsu arrotza izan zen.²¹

- 1520-II-28an, Tolosan, Zestoako Joan Perez Arretxeoak eskatuta, Martin Martinez Araizkoa eskribauak Toledoko Torrijos hiribilduko "Corpus Domini" izeneko kofradiaren konstituzioen kopia atera zuen.²² Aizarnako elizan, berriz, 1520. urte inguruan ekarri zuten Iraeta etxeak bertan duen kaperako aldairearen gainean dagoen triptiko flandestarra. Ustez Jan van Coninxloo bruselarrak egina da. Kristoren jaiotza eta beste eszena batzuk ditu margoturik.²³ Enrique Valdivieso adituaren arabera, berriz, Pieter van Aertsen da triptikoaren egilea. Argitu beharra dago, hala ere, Aizarnako elizan orain dagoen Iraeta etxearen kaperak 1537. urtean eraikitzen hasi zirela.²⁴

Erljioaren hariari jarraituz, hain zuzen Flandesen espainieraz lehen aldiz 1520an argitaratu ziren Martin Lutherren lanak.⁸

1520. urtean, bestalde, Zuberoako Forua biarnez argitaratu zen.²⁵ Itsasoan, berriz, Fernando Magallaesen armada Magallaesen itsasartera heldu zen. *Trinidad*, *San Antonio*, *Concepción*, *Victoria* eta *Santiago* izeneko itsasontzietan 265 gizon abiatu ziren lehenago munduari bira ematera. Euskal Herritik 19 joan ziren. *Concepción* izeneko ontziko maisu Joan Sebastian Elkano getariarra zihuan.¹⁰



6.22. irudia. Aizarnako elizako triptiko flandestarra.

6.4. SEIGARREN KAPITULUKO OHARRAK

- ¹ MORENO FERREIRO, M. Datos históricos referentes al palacio de Lili en Zestoa (Guipúzcoa). Zestoa, (d/g, argitaratu gabea) (13, 14. or.).
- ² XX. Registro de las Juntas Generales celebradas por la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa en la Villa de Cestona del 17 al 26 de Abril de 1518. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1935. (1-23. or.).
- ³ ORELLA UNZUE, J. L. Instituciones de Gipuzkoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (43-53, 91-94, 109, 220-222, 224-228, 322-324, 332. or.).
- ⁴ LARRAÑAGA ZULUETA, M. *Aproximación al estudio económico de Gipuzkoa a través de las fogueraciones de Juntas*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (280. or.).
- ⁵ XX. Simancasko Artxibo Orokorra. Sección XVI. Contaduría Mayor de Hacienda. Escribanía Mayor de Rentas. Serie: Quitaciones de Corte. 38. paper sorta. 1185-1191. (1. or.).
- ⁶ DIEZ DE SALAZAR, L. M. Ferrerías guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI). Donostia, 1977. (379. or.).
- ⁷ XX. Zabala Etxeko Artxiboa. Fondo de la Casa de Zavala. Sección 7. Altzibar, Etxaniz, Aialdeburu. Altzibar-Jauregi I. Mayorazgos de Altzibar-Jauregi. Curriculum y honores. 392.6.
- ⁸ GOÑI GAZTANBIDE, J. Historia de los obispos de Pamplona. III. alea. Siglo XVI. Iruñea, 1985. (104-106, 245. or.).
- ⁹ ERENTXUN, J. Apellidos Blasonados. Enciclopedia Guipuzcoana, 5,6,7. faszikuluak. Donostia, 1965. (211. or.).
- ¹⁰ ARTETXE, J. Elcano. Espasa-Calpe, S.A. argit. Colección Austral, 1504. Madril, 1972. (33, 55-64, 66, 67. or.).
- ¹¹ LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. IV. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1971. (83-85. or.).
- ¹² ORELLA UNZUE, J. L. *Estudio iushistórico de las Juntas de Gipuzkoa hasta 1550*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (211. or.).
- ¹³ SAGREDO, I.. Navarra. Castillos que defendieron el Reino. I. alea. Pamiela argit. Iruñea, 2006. (18. or.).
- ¹⁴ XX. Loiolako Artxibo Historikoa. Loiola familiako fondoa, 108. agiria. 2-24.

¹⁵ XX. Simancasko Artxibo Orokorra. Sección XVI. Contaduría Mayor de Hacienda. Escribanía Mayor de Rentas. Serie: Quitaciones de Corte. 9. paper sorta. 395-396.

¹⁶ HERRERO, V. J. eta BARRENA, E. Archivo Municipal de Deba (1181-1520). I. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 123. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2007. (404-409. or.).

¹⁷ AROZENA, F. Guipúzcoa en la Historia. Minotauro argit. Madril, 1964. (118. or.).

¹⁸ XX. Arboles genealógicos de los poseedores de Lili. Lilitarren Artxiboa. Donostiako San Telmo Museoa. 22. paper sorta. 5. (5-7. or.).

¹⁹ MARIN PAREDES, J. A. “Semejante Pariente Mayor”. Parentesco, solar, comunidad y linaje en la institución de un Pariente Mayor en Gipuzkoa: los señores del solar de Oñaz y Loyola (siglos XIV-XVI). Ikerlanak, 5. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1998. (254, 255. or.).

²⁰ HERRERO, V. J., ACHON, J. A. eta MOTA, J. C. Archivo Municipal de Mondragón. Tomo V. Libro 2. Copia de privilegios antiguos (1217-1520). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 86. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2007. (404-409. or.).

²¹ AZKONA, T. San Sebastián y la Provincia de Guipúzcoa durante la Guerra de las Comunidades (1520-1521). Estudio y Documentos. Donostia, 1998. (359-362. or.).

²² AIERBE IRIBAR, R. M. eta ELORTZA MAIZTEGI, J. Archivo Municipal de Zestoa (1338-1520). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 136. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2008. 56 eta 57. agiriak (247-252. or.).

²³ DAVILA, V. *Triptiko flandestarra*, in, Danbolin, 19. zk. Zestoa, 2002ko ekaina. (17. or.).

²⁴ Eztiola, Esteban. Zestoako eskribautza. 2/001619 paper sorta. Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. (208a-225i folioak).

²⁵ ALBIZU, X. eta beste. Euskal Herriko Historia I. (Historiaurretik Nafarroaren konkista arte). Gaiak argit. Donostia 2004. (159. or.).